

83KO EGUBERRIAK



TTiPi - TTAPA

TXIKITAN, NORBAITEK GALDETZEN ZIDANEAN, EA ZER IZAN NAHI NUEN GERO, HAUXE ERANTZUTEN NIÓN....



ESKOLAN, EZ ZITZAIDAN BEHIN ERE BURURATU IRAKASITAKOAZ GALDERARIK EGITEA.



UNIBERTSITATEAN, KARRERA OSOA EGIN NUEN, EZERTARAKO BALIO EZ ZUELA JAKIN GABE.

SOLDADUZKA EGIN NUEN GERO, DENBORA GALTZEA ZEN ALA EZ PENTSATU GABE.



EZKONDU EGIN NINTZEN, BAINA BETIRAKO ZENEZ OHARTU GABE.

SEME ALABAK IZAN DITUT ONGI PENTSATU GABE.



Ttipi-Ttapa, Bidasoako aldizkaria
zuen lanak: argazkiak, marrazkiak,
ipuiak, bertsoak, olerkiak, komi-
kiak, iritziak eta abar... argita-
ratzeko da.

ANIMA ZAITEZTE!!!

Zuzenbidea: Ttipi-Ttapa

Euskalduna jatetxea

Bera

NON ZER

Idaz lanak:

2. Euskaraz bizi. R. Xabier
3. Bertsoak. F. Iriarte
4. Ipuia. Ainhoa Senper
6. Aconcagua neguan euskal espedizioa. X. Erro
9. Olerkia. Hilargi
10. Bidasoako ugarteak. Marimatraka
12. Pernando Amezketarra
13. Osasuna eta Katarro
14. Berriak
17. Larrazkena. Mariano Izeta
19. Bazta. M. Garde
21. Olerkia. Ezpal
22. Heldu den igandean, non dira bestak
26. Burokrazia eta ugaldea
28. Ipuia
29. Zer da zuzentasuna? Itzulpena
31. San Antongo Uharkataz
34. Txoko txiki
36. Txoko izenak
37. Ipuiak
38. Sinesgaitza. Landaxoko
40. Koxkonta irratia
43. Paulo Yanzi. Kapi
50. Olerkia e.z.
52. Narrazioia. A. Goizueta

"GU" TALDEAK EGINA

LAGUNTZAILEAK:

- BERAKO HERRIKO ETXEA
- GURE TXOKOA S. C. R.
- NAFARROAKO AURREZKI KUTXA
- PRINCIPE DE VIANA

Marrazkiak:

- azala: xinaurre gorriak
0: WOLINSKI(itzulia).
Komikia
9: Antxon
12: Pikabea
21: Antxon
25: komikia: xinaurre
gorria
49: Pikabea
52: A. Goizueta

gibeleko azala: Juan I. Larramendi



EUSKARAZ BIZI

Jakina da, herri batek bertze bat bereganatu nahi izan duenean, bertze gauzen artean, honen nortasuna zapaltzen saiatzen dela; nortasun hau kulturaren eta ideietan oinarritzen da. Hala ere, biadierazpide hauetatik kultura da garrantzitsuen, horrek adierazten baitu herri baten berezitasuna, areago kultura hori jatorrizko hizkuntza denean.

Hori bera gertatu da Euskal Herrian urte aunitzez; gure kulturaren berezitasun nabarmenena euskara da, eta hain zuzen ere, horregatik izan da eraso eta gaitzetsia etsaien aldetik; baina -- hauen eraginez gutariko aunitz -- ere jokabide berean erori da, eus-

karaz lotsatuta, hizkuntza hau izkutatuz eta ukatuz, erdaraz erneagoak izanen garelakoan edo, euskararen bizia hilzorian jarri arte/ eta berarekin Euskal Herriarena -- ere. Gainera erran behar da euskaldunok nahiz euskaraz jakin, -- gehienak gure hizkuntzan analfabetoak garela, idazten eta irakurtzen ez dakigula, alegia.

Egoera triste honek kezka -- haundia sortu du gure herrian, -- zenbait jende euskararentzat behin betirako aterabide bat aurkitzera bultzatuz eta guzi hau helburu batekin: euskaraz bizi gaitzen. Eta ez nolanhiko aterabidea, ezta orain arte euskarak izan -- duen erabilera murrizta ere, hau/

da, etxe barreanean bakarrik, edozein tokitan eta edozein gaiez -- mintzatzeko baizik.

Behin betirako aterabide hori lortzeko urratsik garrantzitsuenetariko bat irakaskuntza eus kalduntzea izan da, beheko mailetatik hasita unibertsitateraino./ Hortik sortu dira euskarazko eskolak, hau da, ikastolak, gure euskal sustrai zaharrek kimu berriak eman ditzaten. Ikastolak agertu direla eta erdarazko eskolek ere/ euskara sartu dute beren geletan/ ikasgai edo asignatura bezala edota haur tikientzat bakarrik. Argi eta garbi erran behar da bide horretatik pertsona bat ez dela euskalduntzen, eta euskara eta euskal kultura folklореkeria eta -- itxura huts bihurtzeko arriskua -- ere badagoela.

Hala eta guziz ere ikastola/ ez da nahiko euskara berreskuratzeke eta lehen hizkuntza bihurtzeko. Euskara galduz joan den -- arauera euskal kontzientzia ere -- gutitu egin da. Gure herriak, berriz ere irudimena dantzatzuz, zenbait ekintza sortu du, euskal kontzientzia hori berpizteko; hortik datoz "Nafarroa Oinez" eta "Korrika", non milaka eta milaka pertsonak parte hartu baitu.

Ahalegin guziau jende aunitzek egiten du baina gehiagok -- egin behar luke Euskal Herriko --

biztanle gehiengoarenak, euskararen etorkizuna eta gure herriarena segurtatu arte. Gauza izango/ ote gara?

R. Xabier.

bertsoak

Arizkun aldetik eman nahi diot
kantu lanari hasiera,
ahal baldin badut nere gogotik
gaur zerbait ere atera.
Joan den egunean sartu ginaden
Baztan aldetik gain behera
herri eder horren ikusitzera
zein deitzen dugun Bera.

Aldizkari bat ateratzen da
Berako herri hortatik
aunitz berrien argitasuna
badaukagu beragatik.
Behin eskuratu baneza
irakurtzeko gogotik
beraz hasi bezala azkeneraino
iraun dezala zutik.

Aldizkari horrek bere gainean
izen haundia derauka
hala den gauza ez dezakegu
niolaz ere guk ukala.
Aldizkari hau dezagun bada
ahal bezain laster harrapa
gora dezagun Berako herria
eta gora Ttipi Ttapa.

Felix Iriarte.

Nik asmatuko

nukeen makina

Nik asmatuko nukeen makina

Atzo ohera joan nuntzemeam abudo lokartu nuntzem, baina gauza arraro bat gertatu zitzaidan: ermatu nuntzemeam goibel batean memgoem. Goibel hau atuz polita zem, margo aurtz zituem: urdina, arrosa, gorria...

Logale haundia etorri zitzaidan, baimane lokartu behar nuntzemeam goibelak aho haundi bat ideki zuem eta erran zidan:

- Nahu didazu labore bat egim?

Ni prest memgoem laguntzerok, eta erran niom:

- Bai, bai! Baimam zer egim behar dut?

- Begura! Erran zuem goibelak. - Hemem, gure planetan, badira bi motatako goibelak: goibel grisak eta kolore aurtzetako goibelak. Gu beti alaiak gaude, jostetam ari gara, uru egitem dugu... haurrak bezalakoak gara. Baimam goibel grisak beti haserretuak daude, ez dute jostatzem eta ez dute ururuk egitem, eta gaimeza ez dute aguntatzem gu jostatzea eta uru egitea. Orain dela egun batzuk sorgimarengama joan nuntzem

- Sorgimarengama? Eta mor da horu? Erran niom
Goibela haserretua erran zidan:

- Bukatzen ahal dut? Bai edo ez?

- Bai! Erran niom

Eta bera jarraitu zuem:

- Buemo! Sorgimarengama joan nuntzem, eta gure arazoa kontatu niom. Berak gauza aurtz egim eta pentsatu zituem, baimam azkemik erran zidan:

- Nik ezim dut deus ere egim, baimam gauza bat badakit, gizo



Nolakoa izanen zen

mem plametarik haur bat baldin badator zuen arazoa konpomi-
duno du.

Eta gero erram zidan:

- Horretarako haurrak maxima bat egim behar du. Maxima
horretan goibel guztiak sartu beharria dira eta horretan demak
ataiak ezango dira. Horregatik eratu zaitut horera.

- Orain, maku didazu lagunduko?

- Bai, ongi da! Lagunduko dezut!

- Buemo! erram zidan goibelak... Zure etxera eramango zaitut, eta
maxima hori bukatzean beruz etorriko zara.

- Bai, bai! Hori egitem dut. Erram niom.

Gaur goizean nere amak erram dit:

- Seki beharria zara eskolara joateko!

- Uste duzue hori egia izatem ahul dela? Buemo! Kasua da,
maxima egitem aru maizeta, eta gutxi falta zaidala bukatze-
ko.

Azinoa Sempre

ACONCAGUA NEGUAN


EUSKAL ESPEDIZIOA

(1983ko Abuztuan)

Aconcagua, Ameriketako mendirik handiena bere 6.959 metrorekin Chile eta Argentinaren muga ondoan dago, Andes mendikatearen bihotz - bihotzean.

Euskal mendizaleen artean nahiko mendi ezaguna. Euskaldunak lehen aldiz 1973 eta 1975ean joan ziren Aconcaguarantz baina gailurra/lortu gabe itzuli ziren, beran -- 1976an Juan Ignacio Lorentek eta -- Angel Rosenek lortuko dute lehenengo aldiz. Nandik egun batzutara nire -- igo nintzen bakar bakarrik, nire -- lagun guztiak espedizio hartan berantz jo zuten azken egunetan eta/aipatzekoa da ere aldi honetan igo zela lehen aldiz gure ikurriña eta hantxe gelditu zen.

Hurrena 1978an Felipe Uriarte, trekking bat eraman zuen Aconcaguara eta Polakos Gleziarretik -- igo ziren, 1979an Martin Zabaleta, Joan Hugas eta nik bide berri bat/egiten dugu Aconcaguaren ekialde--tik. Urte berean igoko dira Felipe Uriarte, Jose Luis Sesma eta Ricardo Gallardo. 1.982an Arabeko espedizio bat igo zen, bi azpeitiar -- ere, Joxe Urbieta "Takolo" eta Jesus Mendizabal "Errexil". Urte honetan, bi nafartar Jose Ignacio -- Ariz eta Mari Abrego igo ziren bide zailenetik; Hego paretatik. Ai-



Aconcagua Iparraldetik ikusita.

*A- Iparraldako gailurra. B- Egoaleko gailurra. C- Manso
D- Berlin, Plantamura, Libertad. E- Independencia.*

patutako espedizio hauek udan -- izan ziren.

Oraingoan ordea neguan saiatuko gara, Hego Hemisferioko neguan gure uda dakigunez, gu baino lehenago 4 espedizio igo dira Aconcaguara neguan; hobeto esan -- hiru bakarrik, laugarrena geurea/ izan da.

Aconcagua mendia, Antartida/haize hotzak oso influenziatzen -- du; ia 40 grado zero azpian jeisten da termometroa; haizeak 200 -- km orduko abiadura hartzen du eta 290 mm-raino jeisten da barometroan presioia; haizearen lehortasuna dela eta mendizaleak oso erraz deshibratatzen dira.

Baldintza guzti hauek, proiektu gogor batean bihurtu zuten/gure espedizioa. Neguan Aconcagua elur asko izaten denez eta -- batez ere behe aldean, gure asmoa gailurretik eskiz jeistekoa zen,/

baino hango haize gogorak elurrik gabe utzi zuten mendiaren -- goiko alderdia, hau zela eta ez ginen eskiz jeitxi; baino eskirik gabe ez ginen igoko beheko alderdietan izugarritzko elur pila bait zegoen!

Hona hemen gure eguneroko -- eginkizunak:

Madriletik irten ginen abuztuaren 2an, goizeko hiruretan -- Spantax charter hegazkinez (95.000 pezeta kostatu zitzaigun bidaiari). Las Palmasen ordu beteko eskala -- egin ondoren Recife (Brasil) iritsi ginen goizeko hamarretan, gero beste sei ordu eta Santiago de Chile ginen arratsaldeko bostetan, gu ongi iritsi ginen baino bi poltsa falta zitzaigun hau izan zen/lehen eragozpena; hauetariko bat/nerea zen anitz kezkatu nintzen -- argazki ekipo osoa poltsa horretan nuelako, behar ziren erreklamopaperak bete genituen eta beste -- hegazkin bat hartu genuen Mendoza -- rantz (Argentina); arratsaldeko -- zortziretan hotelean ginen!

Abuztuak 4. -- Aconcagua igotzeko behar den baimena lortu dugu, eta arratsaldean galdutako bi poltsak agertzen dira, nerea puskatua eta itxarotzekoa zen bezala argazki kamara eta teleobjetiboa ez zeuden barruan;/ beste poltsa, Olazagoitiarena zen eta ski-botak falta dira! Kriston putada!

Abuztuak 5. -- Eguraldi txarrekin, bi kamionetetan irten gara Mendozatik -- Puente del Incomantz, 180 km. -- egin ondoren bazkaltzeko orduan -- iritsi gara Puente del Inca ko ostatura. Errepidearen azken 20 km. elurrez estalita zeuden! Puente del Inca (2.700 metro inguruan) metro beteko elurra dago. Gaur -- egun osoz, goiz eta arratsalde -- elurra ugari egin du gelditu gabe.

Abuztuak 7. -- Puente del Inca.

Elurrak jarraitzen duenez Chilerantz dihoan -- errepidea itxi da. Bazkalondoan -- atera gara eta Quebrada de Horconeseraino iritsi gara, 12 km. gorantz motxilarik gabe; itzultzera koan berriz (elurra oso biguna zegoenez) izugarritzko muturrekoak -- hartu ditugu.

Aconcaguaren Mandabal aurpegia.
Bida arrunta.



Aconcagua.
A- Iparraldeko gailurra. B- Egoaldetako gailurra
C- Manso mandia. D- Barlin, Pantamura, Libertad.
E- Independencia. F- Martinez arria. PM. Plaza mulas.

Abuztuak 8.-Motxilak ongi beteta, Puente del Incatik irten gara goizeko zortzi retan, eta konfluentziara /3.500/m) 20 km-ko ibilaldia egin ondoren arratsaldeko hiruretan iritsi gara, hemen, geure zamak utzi eta Puente del Incara jeitsi gara lotara. Elurra oso biguna dago, baretan zaila egiten zaigu bidea -- kondizio hauetan idekitzea.


Abuztuak 9.-Berriz ere motxilak ongi betetik konfluentziara igo gara. Iris terakoan ski bat puskatu zait, nere zama konfluentzian utzi eta -- Puente del Incara jeitsi naiz -- skiak aldatzera. Nere lagunek konfluentzian jarri dute kanpamendua eta bertan gelditu dira.

Abuztuak 10.-Goizeko hamaiketan konfluentzian nago berriz nere ski berri/ eta guzti, hemen lagunekin elkartu eta beste igoera bat egin dugu Playa Zabaleraino (oso eguraldi txarrarekin eta haize txuriek, / "Viento Blanco del Aconcagua", biz pahiru metrotara ia ez genuen ikusten.

Abuztuak 11.-Eguraldi txarrak jarraitzen du, (oso haize gogorra elurraz nahastuta) hala ere porteo/ bat egin dugu haitz haundi bateraino, arratsaldeko hiruretan/ zamak utzi eta 3.500 metrotako kanpamendura jeitsi gara lotara.

Abuztuak 12.-Gaurko egunez/ ezin izan dugu gorantz irtetzerik; egun osoz -- denda barruan izugarritzko elur-- haize ekaitzakin. Bost egun daramagu mendian eta oraindik Plaza de Mulasera ez gara hurbildu/ ere (udan ibialdi hau egun batean egiten da). Pentsatzen genuen baino gogorragoa jartzen -- ari zaigu mendi hau. Santxi Bengoetxea edema pulmonerrekina dago, medikuak (Lorente) berantz bidaltzen du, bihar Puente del Incara jetsiko da.

Atzo nere ski berriekin igo tzen hasi nintzenean bost txakur lau ankakoak nere atzetik abiatu ziren. Izugarritzko iskanbilak, -- ohuak, elur pilotak bota nizkien, baina hauetariko batek nire atzetik jarraitu zuen konfluentzian, no, gero gauean izugarritzko hotza egiten zuenez, denda barruan sartu nuen, hurrengo egunean, -- nahiz eta guk jeitsiko zela pentsatu, gure atzetik jarraitu -- zuen.



JARRAITUKO DU.



Hurbiltasuna

Udazkema berriro,
erreakan hosto gorriak dantzaz
uraren musikak mire belarriak
betetzen ditu
eta, nire bihotzean
hure hitzekin mahastu da;

eguzkiaren epeltasuna nere larruan
hure lastanekin batera.
Eta udazken berriari
zauri zaharren mina ez dut sumatzen,
bizitza
isurtzen baita nire eskutik.

Hilargi.

TXINGUDI ZURE ESKUETAN, BIDASOAKO UGARTEAK

nauek dira euskal gobernuko transporte eta lurralde politikako departamentuak, ingurugiroko bizekonseilaritzak eta Aranzadi zientzi elkarteak informazio gisa atera dituzten zenbait horriren izenburuak.

nahiz eta aldizkari hau baztan bailarakoa izan eta asfori, ez dut esango arrotz baina bai urrun edo ezezagun egingo zaien bailara hau, bado Baztangoarekin elementu komun bat, Bidasoa hibaia hain zuzen.

Artikulu honen helburua ingurune ekologiko bati buruz zenbait berri ematea da, harriskuan dagoen eta ekologikoki askok uste duena baino garrantzi haundiagoa daukan egoera eta lurralde bati buruz zer edo zer azaltzea.

Ingurune honen muga Jaizkibel menditik hasi, itsasaldera jotzen duen alderdia ere kontutan harturik eta Maintxurizketatik zehar pasatuz Aiako Arrietara iritsi bitartean zabaltzen da Txingudiko estuari-
oan Bidasoa hibaia hibaiaho edo desentokadura besarkatzen duelarik.

Gaur egun Bidasoa hibaia hibaiahoan ikus ditzakegun ugarteek hibaia hibaiahoan goimailetatik urek ekarritako gaien sedimentazioan dute beren sormena.


Gizaldietan zehar eta gizakiaren finkapena eman aurretik, sedimento guzti hauek ugarteak sortu zituzten; beti ere uholde eta marea bizi-
en eragin natural bati erantzun emanaz.

Bertan bilakatu zen fauna eta landaretzak aberastasun haundia euki zuen, bertan bidai estazionaletan jarduten ziran ugaztun haundien taldeak ez ezik hegazti migratorioak ere gelditzen ziran; azken hauek, gaur egun oraindik ere gelditzen diranak dira. Amerika eta Groenlandiatik ere iristen omen ziran angula eta izokiak.

Gizaldiak aurrera zijoazten neurrian, hibaia hibaiaho honen urbazte r eta ingurumetan finkatu zen jendetza ber-


tako lur emankor eta ur garbiek suposatzen zuten bizibideaz ohartu zen.

Baina lurralde hau ez zen animaliengandik bakarrik erabilia izan pasabide bezela. Kontutan izanik alde batetik kantauri itsasoa eta bes-
tetik Aunamendi mendikatea daudela, gizonari nahi ta nahiezkoa egin zi-



tzaion alde batetik bestera Bidasoako hibaiaho honetatik pasa behar izatea antzin antzinetik, ehiztari edo artzai transhumante bezela bizi zenetik. Beranduago erromatarrek beraien kultura ekarri zuten eta baita lurraldeari bere fruituak ondo atera ere. Erdi Aroan garrantzi estrategikoa hartu zuen bailarak. Orduzkeroko guda edo gerrateek utzi zuten marka. Eta azken bi gizaldietan "frontera" delakoaren efektoa nabarmen egin da.

Gizaldietan zehar gizonaren eraginak antzinean oso aberats izan zen ingurune bat desegin du, zulo betetze, ur azpiko lur ateratze inkontrolatu, kutsadura, eta abar... dirala eta.



Bidasoako ugarte hauen garrantzi ekologikoa nabarmen jartzen da emigrazioan zehar hegazti taldeen jokabidea ikusiaz, Txingudiko estuario hau atsedenaldira eta indarberritzeko puntu bezela hartzen dutela ikusiaz.

Hegaztiak zenbait migrazio bide dute Europan zehar Peninsula Iberikako hego alde eta Afrikara zuzendurik, bide guzti hauek zenbait puntu estrategikoetan bat hartzen dutelarik. Puntu estrategiko hauek oztopo geografiko garrantzitsuak zeharkatzen dituztenak izaten dira eta gainera indarberritzeko behar duten hainbat energi errekurtsio eskeintzen dutenak. Puntu hauetako bat dugu Txingudiko estuarioa eta Bidasoako ugarteak.

Gai honi buruz zer edo zer gehiago jakin nahi duenak informazio zabalago bat jasotzea eukiko du Urdanubiako errota; bertan eraiki baita museo gisako zerbait. Errota honetara ikustaldia egin ezkeror zenbait gauza ikusteko aukera euki dezakezue, aipatutako ingurune honen maketa eta lurraldeen erabilera, Txingudiko mineralak, Jaizubiako basoko animalia eta landareak, errota makinaria eta bere erabilera, audiobisuala, Txingudiko ingurune fisikoaren ikasketa, eta abar...



AMEZKETA'KO PERNANDO

Eta ardi auetxek izan ziran, Pernando betiko zorretan sartu zuten ardiak, eta gaixo-aldietan estuasun aundiena ematen ziotenak ere. An agertzen bait-zitzaion beti, oe-ondoan, dirua aurreratu zion gizona...!

Gaixo-aldi batean, eta gizontxo ori oe-ondoan zegoalako-edo, onela esan zion, bein, On Krixpin'i:

—Onetxi ordaindu-arteko bizia emango ba'lit Jaungoiko gure jaunak, orduantxe ilko nintzake pozik...!

Eta On Krixpin'ek goxo-goxo:

—Etzaitte bildurtu, Pernando. On-ona da gure Jaungoikoa, ta berak emango dizu, zure zor oiek ordaintzeko, naiko asti...!

Eta itz auek entzutean, irten egin zan, Pernando'ren gelatik, diru-billa joan zan gizon ura, ta orduan Pernando'k On Krixpin'i:

—Ai, On Krixpin, On Krixpin...! Nere zor guztiak ordaintzeko-aíña asti ematen baldin ba'dit gure Jaungoikoa'k, zuk ez dezu nere entierroa kobratzerik izango...!

Ea aurtengo negua osasunean/
pasatzen dugun!

Katarroa eta gripea infek-
zioak dira eta beroien eragileak/
berriz, bakteriak eta birusak.

Infekzio hauek harrapatuz ge-
ro, muki dariola, eztulka, zintzu
rreko minez, sukarrez edo juntura
ko minez egotea ez da harritzekoa.
Haurrek berriz, batzutan behetti-
ko piska bat ere izaten ahal dute.

Honela izanik, botikarik --
(antibiotikoak errate baterako) -
hartu gabe, ia gehienetan aisa --
joaten dira, baina horrek ez du -
erran nahi tratamendurik paratu -
behar ez denik.

Zer tratamendu egin behar da?

-Ur aunitz edan.

-Ohatzean sartu, deskantsatu.

-Aspirina bezalako kalmanteak
hartu. Buruko eta gorputzeko mina
kentzen eta sukarra behettitzen -
laguntzen baitu.

-Ez da beharrezkoa dieta egi-
tea baina barazki eta fruta, la--
ranja eta limoi-zumoak hartzea ko
menigarria izaten da.

-Ez erre.

-Lurrinak edo ur beroaren lai-
noak hartu, ur bero horretan euka
liptusaren hostoak botatzen ahal/
dira. Egunean bi edo hiru aldiz -
egin eta aldi bakoitzean ordulaur
dena egon.

Osasuna eta katarroa

Gripe eta katarroei aurre --
hartzeko berriz, hau egin behar --
da:

A. Bizimodu sanoa (ejerzizio -
fisikoa, tabakoa utzi, janari gar-
biak jan, barazki eta fruta gehia
go,...)

B. Denek kutsatzeko arriskutan
gaude. Eri batek eztula edo erro-
singa egitean bakteriak edo biru-
sak anbientera botatzen baititu./
Horregatik, garbitasuna, hau da:/
kontuz ibili janari eta ontzietan,
erriak haurrengana ez hurbildu, ez
tula egitcan ahoa, sudurra estali.



-Katarroa izanik, mukiak kentzerakoan ez da indar haundirik egin behar. Kontu haundiarekin -- garbitu infekzioa belarrietara pasatu ez dadin. Hurrei, hori egiten ere erakutsi egin behar zaie.

Sudurrean muki aunitz izanez gero honela garbitu behar da:

1. Haurretan, jeringa edo perilla batekin mukiak ateraz, baina kontu piska bat hartuz.

2. Pertsona helduetan berriz, gatz-ura piska batekin suderretik zurrupa eginez.

Hau egin eta astebete barru/ sendatzen ahal da. Horrela ez balitz eta bronkiotako konplikazioen bat sortuko balitz, orduan antibiotikoren beharrea izanen da/ eta medikuarengana jo beharko du.

**Berriak ~
Berriak ~ Berriak**

BERAKO KONTSULTETXE BERRIA. - Bazen ordua eta, Beran badago KONTSULTETXEA. Baditu: sendabide orokorarako 2 kontsultagela, pediatriko gela, X izpiako gela, itxaron gela, erakusmen hartzea edo la

borategia, KOMUNAK, kapera-egintza gela eta bigogailua ospitaleko alojamenduentzat. Lan hauek 6.700.000 pzt. kosta dira eta hauetatik -- 2.700.000 ekipamendutan gastatu dira.

Sanitatez ari garela eta, badago erraite bat ere Beran bi mediku eta praktikante direla.

HILTEGIARI BURUZ. Berako Udalak hiltegi lokala bat izateko bere arrazoiak baditu, haien artean/ baserritarren onerako, zuzenki, -- bertako harakinekin tratatzea egin ditzaketelako. Orain, zer egin -- zaharra moldatu ala berria egin?./ Dela dena Diputazioak zorren erdiak ordaintzeko haina diru ematen du eta dirudienez lehen baino esigentzia gutxiagorekin. Herriko harakinak ados daude haragi kiloko -- hanbertzeko bat ordaintzeko.

ABELTZANTZAREN MARTXAZ. Ardi/ azindak gero eta gehiago eta behi azindak guttiago doazela iduri du, gure Bidasoako bazterretan. Horrela jakin genuen azkeneko Lesako ferietan ahariak zuten eskaria ikusita. 20.000 pzt. eskatzen zuten aharien nagusiek beren bizkar zabaleko azienda ederrentzat./ Behi azindak berriz aintzineko urteetan baino guttiago ziren eta -- haien artean "txarolesa" eta "pirenaika", haragietako diren azindak.

BERAKO "RICARDO BAROJA" ESKOLAN. Aurtengo ikastaroan 32 haur/euskarazko eskolan hasi dira, eskolaurreko eta lehen mailako ikasketak euskaraz eginez. Erdara lan tzeko ere, egunero ordu erdi bat/erdaraz aritzen dira. Bertze mailetan ere, erdaldunak euskaldun tzeko eta euskaldunak alfabetatzeko klaseak ematen dira.

IGERILEKUAK. Gauden hilabetean bukatzen dira Berako igerilekuko lanak. Suspelako alderdi eder batetan dago eta instalazio/sail bat badu: txapelketako igerilekua, 25 x 12,5 metrokoa, hurrentzat 2 igerileku, squasch bat, ura garbitzeko tresna, biltegia, ostatu, arropa zaindegia, aldagelak, komunak eta dutxak. Lanak zinez eta etorkizunean pentsatuz eginak dira. Horrela, aberiak erraz konpontzeko tutueriak tuzela batean daude eta ur beroa ez hoztutzeko igerilekuako hormak isolatuak. Lan guztiak 15 milioi/gosta dira.

BERAKO IKASTOLAN. Hogei haur hasi dira aurtengo ikastaroan eta hauekin 230 ikasleetara ailegatu da eskolaurre eta O.H.Oko mailetan. Irakasleak 10 dira nominandaudenak eta 3 (musika, frantsesa eta gaztelaniakoa) horretatik kanpora. Ikasgelak Alzateko etxe berrian eta Agesta Etxean banatuak daude.

EUSKAL TELEBISTA. TVE-ren 2. katea ikusteko, Jaizkibelean kon taktatzeko errepikagailu bat behar dela ados daude borts herrietako udalak. Horretarako eskakizun honekin, Diputazioara errepresentazioa bidali behar dute. Eta/hau hain beharrezkoa ikusten dute, bakoitzak beren bideak bilatuko dituela ez badute zutoina lortzen.



ORAIN DELA 36 URTE. 1947an hain zuzen, jokatu zen Berako Ziklo Kross lehen txapelketa. 105 lasterkarik parte hartu zuten. Berakoak: Alejandro Salazar, Jose Rozas, Gregorio Lanz, Matias Iratzoki, Angel Matxiarena, Juan Lekuna, Miguel Martinez, Santiago Bidaur, Alfonso Oroz eta Juan Loiar te; lehenbiziko Lanz, 2. Bidaur eta 3. Matxiarena ailegatu zirelarik. Lehen txapelketa hura, Eizagirrek irabazi zuen, Donostiako "Miner" ekipokoak. Bidea, herriko bazter guztiak ukituz Illekuetatik Garmendiko Bordara eta Zalain era, Berako Eliz Nagusiko harmailetan barrena eta guzti.

ASPACEKÖ Bortz Herrietako zentroa Beran dago. 15 ikasle eta 4 irakasle espezialduak bizikitzen dute. Ikasle batzuk gaztaro-ra ailegatu direla eta, aurtan lantegiaurreko bat prestatzen ari dira.

ASPALDIDANIK BARIANTE baten beharrean aurkitzen da Berako herria. Bi proiektu badira, Alkaiagan barrena pasatuz, Zakinetik Arkaitza ingurutaraino. Proiektu baten arabera bide berriak tunel batez pasako luke Alkaiaga auzoa azpitik. Bertzea da Alkaiagako ibarretik pasatuz. Hasi baino lehen, ongi pentsa beharko da zein den egokiena, natura errespetatuz obra eder bat izan dadin.

DONEZTEBEKO FERIAK. Elizondon baino azinda eta gauza guttiago ikusten zen. Hala ere jende pila bat bildu zen.

JOALDUNEN EGUNA ITURENEN. Azaroaren 27an. Euria egin arren, jendea ederki moldatu zen. Bertsolariak, trikilariak, herri bazkaria eta joaldun saio ikusgarria izan zen.

EZKURRAN udal hauteskundeak errepikatu dira eta Independiente bi zinegotzik eta Erakurri taldeko bortzek osatzen dute udal berri hau.

ETXALARREN udaleko Herri Taldeak, zinegotzi jormalen dirua Ikastola eta telebista errepikagailuarentzat ematea erabaki du.

BERRIAK

BERRIAK



ANTSOAIN, Aoiz eta Erletokietan hortan ari dira.

Bertako bizilagunek ongi erantzun diote eskaera honi.

Hau izan da egin dutena: zabo rratarako doan beira eta papera be rezi, eta materiale bakoitza horre tarako paratutako leku aproposetan jaso.

Bederatzi hilabeteren buruan, 71 Tm. beira berreskuratu da, hau/ da, erabilitako beiraren %80; eta/ 120 Tm. paper nahiz eta lehenago-- tik zati haundi bat eskoletan eta/ langabeen artean bildua izan.

"Lorea" taldeak erakusketa -- bat egin du eta bertan beira, pa-- per, plastiko, goma, txatar, pil-- tzar eta konpost egiteko erabil-- tzen diren zabor organikoren (jan/ hondarrak) berreskuratzeko ziklo - osoak ikus daitezke. Ikustaria, -- han dagoena irakur, ukitu eta ika-- si ondoren, hau pentsatzen atera-- tzen da: gezurra dirudi, zenbat - gauza egiten ahal den zaborretara/ botatzen diren gauzekin.




Lehen aipatu dugun konpost ho ri, lurra^{entzat} ongarri egokia da. Pentsa dezagun, Nafarroako lurra/ materia organikotik %0,5 du eta - %3 behar du bere onean egoteko, - beraz, konpost honek funtzio ona/ beteko lukeela.

Hondakinekin gauza aunitz lor daiteke: badute egina aerogenerado re bat; konpost-a era azeleratuan/ egiteko fabrika eraikitzekotan di- ra; eta gurpil azal hondatuekin -- Wolswagen-entzat gomazko alfombra- txoak egiten ari dira.

Larrazkena

Zein atsegingarria den la- - rrazkena eguraldi ederrarekin. - Urriko egun hoietan eta haizego - goxo batekin mendiz mendi dabilen gazteak gain hoietan hartzen du - atsedean. Uda ttipi hau San Martin pasa arte luzatzen baldin badu gu zien gainekoa da. Hori guzia goza tzen ahal dugu eguraldi ederrare- kin, baina txarrera ematen badio orduan larrazkenaren edertasuna -



suntsitzen da eta neguaren itxura hartuko du batez ere Sanmartinak/aldera. Haize ikaragarria bazter/guziak ifarrosten dituela, zuhaitzak bilusten eta zenbaitzuk ere/lurreratzen, eguraldi gordina, or^utoska eta ifeiztureka eta bai zizkerora eta elurra mendi gainetan. Bainan aurten Jainkoari esker ez/dugu holakorik yasan, aurtengo larrazkena aski ona eta atsegingarria gertatu baita. Aurten denbora eder hoietaz goxatu ditugu, -- San Martinetan eguraldi garbia -- eguzki goxo batekin, giro zoragarria eta mendiak eta zuhaitzak larrazkenaren kolore gorritz yauntzi^zrik.

Larrazkenari buruz berriz -- ere erran dezagun, gauzak ongi -- goatekotan eta neguan sartu baino lehen nekazari batek behar lukela zitua etxeratu. "Etxera bil" dio/etxeke nagusi eta holaxe etxeke -- zoko guziak ongi horniturik lasai dago bere familia negu bortitzari gogor egiteko eta batere nekerik/gabe udaberrian sartu arte irauteko.

Berriz ere San Martin aipatuz erran dezadan ere Baztan-Bida^zsoa alde huntan badirela zenbait/ohitura eta oraindikan ere irauten dutenak nahiz eta ez duten aspaldiko denboretako indarrik. San Martin egunean maixterrak ordaintzen zion etxeke errenta bere nagusiari eta sasoin hortan ere iza

ten ziren "aldairek", hau da, -- maixterra etxe batetik bertzero -- aldatzea. Lenagoko denboretan aunitz aldiz gertatzen baitzen holako aldatzeak. Etxeko puska guziak bildu eta orgetan edo leran behi/parea uztarrarian loturik etxe berriari buruz abiatuko zirent.

San Martin eguneko behar zuten etxea ustu eta zaukaten guzi/guzia harturik, zokoak ongi garbitu arte. Sasoin hau batzuentzat -- pozgarri bainan bertzeentzat negargarri. Baserri zahar hoiek solasean balekite zer gertakizun -- tristeak agertuko lituzketen. Xutik irauten duten pareta zahar -- horiek zer ikusi ote dute... Txarretik onera nonbaitor, bainan -- onetik txarrera zer errango dugu. .. Zenbait xaharren kontakizuna -- ez dira ez esne gainetan bizi direnen kondairak.

Maixterrak badu nagusi berria, badu bizileku berria eta bizi beharrak bortxatuko du berriz/lanera eta holaxe yarraikiko ere/indarrak irauten duten bizkitartean. Azaroa joanik Abenduan sartuko gara negu bortitz baten zain. Maixter berriak bere etxea ongi -- hornitua balin badago ez du kezka haundirik izanen eta hala behar -- luke neguaren aserreari gogor egiteko eta elurra ari dualaik kanta xahar hau errepikatzeko.

ELUR MELUR EZ DIET HIRE BELDUR, BADIET ETXEAN ARTO TA EGUR.



B A Z T A N

Nafarroan den Udaletxe handiena Baztan da. Hamabost herri daude bere babesean. Zabalduraz 273'85 km² dauzka eta herri guztiak elkartuz ez dute 8.545 bizilagun baino gehiago. Dena dela, lau lurraldetan banakutzen da babilara osoa; erdaraz "kuartela" deitzen dute lurralde haueri. Lurralde bakotzak bere herri multzoa dauka eta bere izenak eta herriak hauek dira: BAZTANGOIZA, / (Erratzu, Arizkun, Azpilkoeta, Amaiur (herri hau 1969an batzaldutzen Baztani); ELIZONDO (Elbete, Elizondo eta Lekaroz); ERBEREA, (Gartzain, Irurita, Arraioz eta Oronoz); BASABURUA, (Ziga, Berrueta, Aniz eta Almandoz), Udaletxe-ko kontseilari edo zinegotziak --

beste herri araberean hautatzen dira, ez hala herriko alkateak, hauek herriko batzarreak hautatzen ditu eta herriko alkateek beren bitartez hautatzen dituzte lau "juntero", lurralde bakotxatik bat. Hauek denok egiten/dute Baztango Batzarre Nagusia edo "Junta General" deitzen den ordezkaritza nagusia.

Gaurko egunean, lehen bezala, Batzarre Nagusiak garrantzitasun handia eusten du. Gure bailaran udaletxeak baino errepresentaketa handiago du Batzarre Nagusiak, ez banoan bere eskutan baitaude lurkomunal guztiak eta hauek Baztanen ehundik larogei ta gehiago izakera haxe baitaukete. Administrazio eta erakunde politiko aurre-

na dugu bada Batzarre Nagusia --
Baztanen. Udaletxeak geroztik -
etorriak dira eta ordurako Bazta
nen bere lege bereziak sendo zi-
ren, hauek dira "Ordenanzas, Co-
tos y Paramentos" eta bertan bil-
duak dira erakunde guziak, hala -
arduradun da guere herrietan.

Berriki, irailak 29ean izan
zen azken Batzarre Nagusia eta -
ikusitako genuen bertan, gure he-
rriko alkate, kontseilari eta -
juntero ditugun ordezkariak, (de-
netara 32 baztandar), izan zuten
zerikusitako, eguneko agerpena hiru-
rogei ta hamabi puntuz osatzen -
zen eta. Goizeko hamarretan izan
bazuten hasiera, lortu arte bukae-
ra izan zuten non eztabaidatu, -
arratsaldeko seiak omen, bukaera/
lortzean eta jakinik!, ez hameke-
tako, ez bazkari, bertan jo ta -
jarraraituz gure ordezkariak behin
gehiago Baztango asmakeriak era-
baki zituzten. Arazo latzak izan
ziren komunalei buruz. Herri Tal-
dea eta Baztandarren Elkartea di-
ren taldeek salatu omen zuten --
ezin zela jarraraitu aurrera gaur-
ko egoeran han eta hemen lurra -
emanez plangintza bat ezen lor-
tzen bitartean. Hain garrantzi-
tzua da Baztanen komunala, here/
bitartez uste baita bultzada izu
garria izango zuela gure nekaza-
ri eta mendiak behar den bezala/

plangintza bat eginez gero. Tar--
tean, talde hauek, esan zuten, guk
ez dugu onartzen komunalei buruz/
Batzarre Nagusian lur ematea au-
rretik ez jakinik zertarako behar
tu beharrak izango garen lur ho-
riez.

Bestalde, Alduide mendiz ere
arazo latzak izan ziren. Gaur Es-
tatuko eskuetan diren mendiak Baz-
tan eta Erroko bailaren mendiak -
izan baitziren lehen, eta nola be-
rriro eskuratu izan zen gure or-
dezkarientzat konpromezu garran-
tzitsua. Tribunal Supremo deitzen
den iritzi baten bitartez, hau --
gertatu zen 1877an, Alduide edo -
Kinto Real den mendia galdu egin/
zuen herriak eta Baztango Batza-
rre Nagusiak dio ez duela onar-
tzen iritzi hau ikusiz nola 1856-
an "Tratado Internacional de Lími-
tes" den iritziak Baztan eta Erro-
ko mendia bezala baieztatzen due-
nez gero.

Gaur, atzo bezala, ikusten -
dugu nola Batzarre Nagusia ez --
izanik Estatuko legea, sendo dabi-
lela eta erakunde nagusi daukate-
la baztandarrek eta zaharra iza-
nik aintzinerara jotzeko ere badira
zaintzaleak. Erakunde herrikoi --
den ohiturak jarraraitu dezan luza-
ro.

M. Garde.

Gauean bakar

Haimbertzetan bezala, solas eta solas egim dugu. Gebem buruhausteak erdizka-osorik agertuz-estaliz, geben kezak, geben esperientziak, gebem barrena erakutsi-gorde dugu.

Hurbildu - urrundu egim gara.

Gaur laino ilun batek bildu du gure bilera. Atertze-ri esperatuko al diogu?

Eta gauean sentimentuz gainezka nago eta luma bateu murreretik honela ixuritzen zaizkit:

Mundu honetan bizi naiz,
borrokatzen dut;
bakar mago, bakar daude;
borroka galduta dugu-dut.
Bertze bizi bat nahi,
bai? ez?
Ez dut deus ulertzen
Hotz nago, huts mago.
Bizi honetan ezerk ez du
axolarik.

Adixkidea:

gustatuko zitzaizkide
mementu honetan
zuk ere honela sen-
titzem bazenuke.

Oheratzem naiz eta pentsatzen dut: bihar betiko bizi modua berriz, eta hautsi, hautsi nahi dut. Hain bakarrik ezin dut, inork ez du posible izan.

Posible ote da?. Planak egiten hasten naiz, berandu da,
lohartzem naiz.

Ezpal





HELDU DEN igandean, non dira BESTAK?

Aurtengo2 galdemodu hori .. isiltzen hastera doa. Bestak akitzen ari zaizkigu, akabo gure iji eta ajak. Hondarrekoak, Aurtizkoak izanen dira eta haiekin negu gorrira sartzen hasi behar, horrek ez du bueltarik. Baina guk, / ederrak bota ditugu! Zein herritako bestatara gelditu gara joan ga be?. Bidasoako herri guztiak miatu, ukitu eta dantzan paratu ditugu eta.

Herriko bestak...

Lau edo bost eguneko besta egin nahiz gero, herritarrek elkartu eta aurrez prestatzen hasteko lana izaten dugu. Nolako bes--

tak egin nahi ditugu? Zein bertso lari, soinujole, abeslari, aizkolari ekarri? Zenbat diru behar dugu?... Gauza horiek ongi pentsatu ondoren, taldeka edo, lanari lotzen gatzazkio. Dena egiteko dago, gure esku gelditzen da. Besta ederra prestatu nahi dugu.

... herritarren besta!

Bai!, horrela izaten da, -- haur, neska, mutil, emakume, gizon nahiz pertsona heldua izan, -- denok modu batera edo bertzerà -- parte hartzen dugu. Besta hauetan ez da inor bereizten. Bertze herrietako jendea ere hemen izaten/ dugu eta horrela herriz herri --

ibiltzeko aukera izatea ez da -- txantxetako gauza. Giro ona non -- dagoen harat joanez; Lesaka, Sunbilla, Lekarotz...., bestetan dau dela eta gu harat. Batzuetan, zakurren muturretan badago ere, gu/hantxe! Hori bai!, herrira itzultzeko orduan istiluak izaten ditugu, kotxerik ez eta auto-stop -- egin behar edo oinez abiatu edo..

al dira etxera etortzeko orduak"? Ume mukizu hori! entzuten ditugu. Nola erran etxekoei gustora geundela eta etxera etortzeko ez genuela inongo presarik? Zer arrazoiz da hori? Ez gaituzte konprenitzen!

Etxetik ateratzeko momentuan berriz, zenbat galdera!, nora --



. ahal den modura. Behin herrian/egonez gero "poco miedo" eta etxera joateko momenturik ez dugu harapatzen. Herriko plazan edo -- etxe atariren bateko harrizko aukietan jarri eta kontu kontari, -- irriz edo kantari, orduak pasatzen zaizkigu. Nola joan etxerailagun artean gustora gaudenean?./ Gero gerokoak pentsatzen dugu eta noski, horrela izaten da; etxean/hanka sartu orduko, amaren: "haiek

zoaz? norekin? nola?... eta "kontsejuak" ez dira falta izaten: -- "Goiz etorri, gero" "kontu eman", "ez edan aunitz", "ez egin tontoririk", "jendeak zer erran behar/du?" eta gauza horiek neskei erraten dizkigute. Mutilei... zera -- "aio! eta aio!". Horrela. Eta auzoko halako edo honelako ejenplugisa paratzen hasten direnean, -- zer izaten da hori? "bai, haiek -- betiro lanean aritzen dira, haiek

neskak!, zuek beti parrandarako --
prest, nundik etxetik aldegin" --
eta abar eta abar.

Eta guretzat herrietako bes-
tek badute bere erranahia, jende/
berrirekin topo egiteko, elkar --
ezagutzeko, gauza berriak ikasi -
eta ikusteko, ongi pasatzeko, dis-
frutatzeako medioak dira.

Horretaz aparte, herri bate-
tik bertzera giroa aldatu egiten/
da, diferentea da. Hala, herri ba-
tzuetan aise sartzen gara, dantza-
ra joaten garenean errate batera-
ko, jendearekin topo egitean, so-
lasa emanez, ligatzen, bertzetan/
berriz, jende aunitz begira dago-
lako edo, ez dakigu zergatik, --
gehiago kostatzen da ambientean -
sartzea eta orduan ba, karrika go-
ra eta behera eta animatzeko tra-
go bat edo bertze egiten hasten -
gara. Lehen "Kas de limón" zena -
orain "Kuba libre" edo txanpain -
bihurtu zaigu. Lotsa galtzen ari/
garenean edo galdu dugula kontura-
tzean, gure martxa hartuz, aurrera!
Komentariotxo bat bakarrik da, --
baina: herri hauetan ez al da so-
bera edaten? Edan gabe ezin ote -
dugu lasai jokatu? Lotsa, edan on-
doren galtzen ote dugu? Aunitze--
tan (eta ez da broma), nahiz eda-
nak egon, gure lotsak ez dira --
inondik gaindituak azaltzen, bai-
zik eta izkutuan gordeak, esta-
liak. Eta, etxera berriz, gure -
kaka guztiarekin! Eta, besta egu-
nak dira, ez?

Baina hemen asuntoa zera da:
udako martxa ezin dela negukoare-
kin konparatu ere egin. Eta ne--
guan sartzen ari garela. Ikusten
al duzue zer nolako panorama du-
gun? Larunbatero eta igandero --
Bordatxora, ez dago galdetu beha-
rrik ere. Eta herrian geldituz -
gero, bi katu elkarri begira eta
asper-asper eginda, jende guztia
harat joan delako. Inork ez dugu
bertze planik egiten eta berriz/
ere, gaur ere Bordatxora!

Udan guk antolatutako bes--
tak neguan berriz!.. Zergatik gu-
re dibertsio medioak ez ditugu -
gehixeko lantzen, indartzen, bi-
latzen?.






Aunitzetan, beno batzutan,/
herrian soinujolean izan dugu---
nean, musika entzun bezain agudo
dantzan hasten gara eta hau ez -
da modu txarra neguko hotzak as-
tintzen joateko. Herriotan negu/
garaian ere besta behar baitugu,
besta erraten dugu baina bertze/
edozer ere izaten ahal da, guk -
antolatutako zerbait, guk bilatu-
tako zerbait erran nahi dugu. --
"Sala de fiesta" k gure herriko -
besten ordezkioak izateak ez digu
inongo pozik sortzen, beraz, zer
egin? zer asmatu aurtengo negu -
honetan?

..NORA GOAZ,

ZER EGIN,

HELDU DEN IGANDEAN?

Iturengo neskatxa batzuk.



Maniere Comics

Burokrazia eta uholdea

Uholdeak egindako kalteak - ikusirik, Arantzako gazte batzuei nolabait laguntzeko nahia sortu - zitzaien, ahal genuen moduan eta neurrian noski.

"Protección Civil"era deitu/ genuenean harako laguntza pertsonalen beharrik ez zela erran ziguten, izatekotan, janari edo bizikairen beharra zegoela eta horretarako aipatutako erakundearen -- oharrak zehazki bete behar zirela. Beraiek kamioia, agian kamio mili tarra, agindu ziguten, bilduta o/ janari eta bizikariak behar zen le kura garraitzeko. Ordu zehatza - ezik, bertze guztia hitzarturik - gelditu zen'.

Premiaren efektibotasuna/ kontutan harturik idazki bat egin zen eta Bortz Herrietako Udaletxe tara bidali, jarrera bat har eta/ laguntza eman zezaten.

Gure jarrera bizikariak Udale txeen baimenarekin biltzea izan - zen, problemarik edo mesfidantzarik sor ez zitezten herriko jendea ren artean'.

Eta, bi bide egoki ikusi ziren:

1.-Albintea dendaz denda ibiltzea, kanpaina honen berri emanaz.


2.-Boluntarioei kredentzial - bat, noragiri bat ematea beraiek/ biltzea egiteko.

Lesaka, Arantza eta Igantzin ideia hau onartu ezik, beren -- gain hartu ere egin zuten janari/ biltzea, herri osoak parte hartuz.

Beran, bertan uholdeak egin/ zituzten kalteak kontutan hartuz, biltzea beraiek eta Ibardingo den detan bakarrik egitea erabaki zen.

Etxalarko Udaletxearen jarre ra parterik ez hartzekoa izan zen, kredentzial eta kanpainaren berri ematea ukatuz'. Eta ez hori baka-- rrik alkatesak oztopoak paratu na hi izan zituen, Arantzako Udale-- txera deituz, gazteek erakutsita-- ko kredentzialaren seiloa erreklamatz eta erranez seilo horretaz/ baliatzen ahal zirela edozer gauza beren kontura egiteko.






Honen ondorio bezala zera --
ikusirik zen: honelako lanetarako, -
herritarrekin kontatu behar dela,
horrela, jendeak parte hartzen --
duelako. Hau dena, denborarik ez -
zegoenez, larrialdirengatik eta -
Udal honen uste gabeko jarreraren
gatik gertatu zen.

Bilketa egin ondoren eta ka-
mioia zer ordutan etorri behar --
zuen bereizterakoan, "Protección/
Civil"ekoek zera erran ziguten: -
berak ezin zutela kamiorik bidali
eta guk paratzeko bat, eta horren
gastuak beraien kontura joanen zi-
rela.

Berri honek taldeari nahasme-
na eta denbora galtzea ekarri zi-
kion.



Makur hau, Berako kamioinari
baten borondatezko eskeintza zela
medio konpondu zen.

Berriz ere Nafarroako "Pro-
tección Civil"era deitu zen, ka-
mioarekin nora joan behar zen ja-
kitek asmoz; Gasteizko "Protec-
ción Civil"era erran zuten, han -
omen zegoela eta laguntza guztia/
bateratua.

Harat iritsi ginenean Bilbo-
ko "Feria de Muestras"ean utzi be-
har genuela erran ziguten. Bilbo-
ra joan eta han inork ez zekien -
deus ere. Jesuita kolegio bateta-
ra bidali gintuzten, gauzak hor-
tik banatzen zirela eta.

Han berriz, tramiteak egite-
ko orduan nahasmen haundia zegoen
eta aldi berean inork ez zuen ka-
surik egiten, eta nahiz saiatu, -
inork ez zuen gure kargaren erres-
ponsable egin nahi. Gure inguruan
zebilten jendeak zenbait proposa-
men egin ziguten hala nola, "Fe-
ria de Muestras"era itzultzeko --
edo konbentu batzutan banatzeko -
edo gaua han pasatu ondoren biha-
ramonean hustutzeko.

Denbora pasatzen ari zen eta
azkenean hau erabaki genuen: mate-
riale guztia han bertan hustutzea.
Hau egin ondoren kasu gehixeago -
egin ziguten.

Lagun Batzuk.

GURE KATALINA



Jeiki behar dugu, kuttutxo, /
ordua da eta, zortziak laurden gu
tti dira... hor dugu gure katua -
berriz miauka.

Gaixoa, atea idekia harrapa-
tzen duenean, etortzen da, gure -
eskaltan egotera.

Urde zikina! eta... Ez da --
isilduko! Zakurrari isiltzeko ---
erraten diozunean isildu egiten -
da, baina hau.... Botako nioke.../
zapata.... bai hori zapata.... --
baina hortarako lehenbiziko jeiki
egin behar.

Gaixoa, hameka aldiz bota -
dut eskaltaz beheiti.... bai..../
Uste dut berari ere ez natzaiola/
gustatzen. Eta ez daharritzekoa -
ematen diodan tratoarekin!

Zer gauza! Katuak ez zaizkit
behinere gustatu. Ni haiei ere ez.
Beno.... ttikiak direnean... bai/
orduan batzuak maite ditut. Bai, /
bai gure Pantxike maite nuen. --
Hain zen katu goxoa! Zuk nere mai-
tea, ez zenuen ezagutu, oraindik/
ez baitzinen jaio. Zure aita eta/
biok gure etxe hartan bizi ginen!
Hain guri eta goxo egoten zen gu-
rekin! Pantxike hil ondoren ezin/
nuen hura gabe laketu. Bai orduan
bai, negarrari eman niola.

Baina gure Katalina ez dut -
maite. Berak badaki hori ongi. Gu
re etxean urte aunitz pasatu ditu,
bederatzi aldiz umatu eta bere ka-
takume nabar bateri erakutsi zion
bera hainako arratoi nazkaga- -

rriak harrapatzen. Baina ez zuen/
berak bezain ongi egiten. Bere mu
gimenduek ez zuten pater txiki ba
ten antzarik behinpein. Ederra --
baitzen amaren itxura.

Betidanik eduki du hemen ego
teko joera. Ez zaio inoiz gustatu
bakarrik egotea.

Eta bere umekin izaten geni
tuen istiluak! Gure aitak beheiti
ko gela espres apaintzen bazion -
ere, berak ohatze baten barrenean
umatu nahi izaten zuen. Eta umatu
ondoren umeak lepotik hartuta ba-
naka banaka goitira ekartzen zi--
tuen. Denak ekartzeko bat falta -
zitzeaionean guk berrik beheitera/
eraman. Eta berak hainbertze al--
fer lan egin ondoren ez zuen etsi
tzen eta berriro ere umeak garrai
tzen saiatzen zen.

Gaixoa, hor dago miauka be--
rriz ere.

Orain ikusi dugu katua, bai/
nere bihotza, orain ikusiko dugu.
Bere itxura tristearekin, gure --
ate ondoan.

Gaixoa, bere ilea dirdira.. -
tsua eta beltza, ilundu da.

Bere mingaina beti karpoan -
edukitzen du. Bere mingain latza.
Eta beti begiratzen nau axolagabe.
Eta beti uste izan dut nitaz gaiz
ki pentsatzen duela.

ZER

DA

ZUZENTASUNA?



Pertsonaiak liburuetatik --
ihes egiten dute eta beren egilea
ren bila joaten. Pailazoa pista--
tik ihes egin eta enpresariaren -

bila doa; gizakia bizitzatik ihes egin eta jainkoekin aurrez topatzera doa. Zeren eta mundu honetan izaten baita une bat gure jarrrera ongi erabaki behar duguna, / itsasgizonak itsasoan bezala, eza gutu behar dugu nora goazen. Beharbada galdu egin gara. Jakin badakigu jainkoak loak hartzen dituela. Batzutan ernatu egin behar ditugula... Eta biraoak bota erantzuten ez badute.

Zeren eta hau ezin baita izan betiereko. Eta behin bakarrik galdetu behar du... pailazoak, gizakiak behin galdetu behar du: zertarako da odolezko eta urratutako pantomima hau, orain eta hemen laidoaren pikotxan dagoen gupidagaitz eta itxuragabeko maltzurkeria hau? Zer adierazten/du? Nora goaz? Nora garamatza guti honek? Zuzentasunerantz? Baina, zer da zuzentasuna? Ba al dago zuzentasunik, bada? Eta baldin bada, hau al da zuzentasuna? Pistako maltzurkeria? Zirkuko saio bat? Feriako pim-pam-pum bat? Gizakia/ eta jainkoak entretenitzeko hitz/parregarri bat? Erantzuniezaidazue, erantzun! Norbaitek erantzuniezaidala... Zer da zuzentasuna?... Isiltasuna... Isiltasuna... Zer da zuzentasuna?... Berriz ere isiltasuna!


Nik ez dakit jadanik jainkoek hitzegiteko ordua iritsi ote den, baina gaurko Historia une hau hain da dramatikoa, hain da haundia sarkasmoa, hain da mingarria txantxa, hain da zitala gizakia, poeta prometeikoak zutitzeraino farandulazko zirpil groteskoak hautsi, pistatik irten eta lapurzulo, gizazeri eta tratarien biltzarre honetan hitza eskatzeraino, hitza!.

"León Felipe"-rena da.
Euskarara itzulia.-

HIZTEGIA

- Amarru = Truco
- Gupidagaitz = Despiadado
- Laido = Injuria, escarnio
- Pikotxa = Piqueta
- Zirpil = Andrajos
- Zuzentasuna = Justicia.

San Antongo uharkataz



Artikulu hau, Lesakako kontzejal batekin edukitako elkar--rizketatik aterata dago. Hemen agertzen diren datu aunitz ezagunak dira. Bertze batzuk baleiteke ezetz; dena dela afera garrantzitsu honetan, informazioa/zerbait sakontzen badugu, gure asmoak beteak izanen dira.

KRONOLOGIA.-

1973an Irungo Udalak Madrilgo gobernuarekin tratua ixten du eta estatuak bere gain hartzen du Irun eta Hondarribiko uraren/arazoa; trukean Irunek ematen di

tu bidesariko kanon baten eskubi deak.

Hiru aukera ikusten dira: - Bidasoako ura probeixtea, Uhaldeko uharka eta San Antongoa. Behar diren ikerlanak eginda, San/Antongo uharka dela soluzio egokiena erabakitzen da.

Kontutan eduki behar dugu - lehendabiziko pauso k frankismoaren garaietan ematen direla. Berehala Irungo Udalak desjabetzera jotzen du eta honek baserrietan eta Lesakako herrian uharkaren aurkako mugimendu bat sorta-

razten du. Lesakan afera honen--
tzarako batzorde bat biltzen da.
San Antongo erromerian, orokorki
eta batez ere Irungo auzoei begi
ra, elkartasunera dehiadar egi--
ten da.

Udal "demokratikoak" hauta--
tzen direnean, Irungoak, Lesaka--
ko Udalaren jarrera gogorra iku--
sita eta herriaren kontra neurri
rik hartu nahi ez duelako, desja
betzea baztertzen du.

Baserritarrekin tratoak has
ten dira, eskeintzak egokiak di--
ra, eta uharka begi onekin ikus--
ten hasten da. Hona hemen uki--
tuak diren baserriak: Idoizin, -
Ola, Borda Endara, Endara Borda,
Dorrea eta Garaiko Etxea.

Lesakako udalak dio, base--
rritarrekin tratoak ixten badira,
berak ere herriko lurrak eta la--
naren baimenak emanen dituel. -
Irungo Udalak Lesakakoari, ordai
netan 7.000.000 pzta. eta Domiku
eta San Martzial inguruetan lu--
rrak trukatzeko hitza ematen dio.

Horrela irixten gara gaurko
egunetara. Afera geldirik dago,/
nahiz aintzinduak izan, baserri--
tarrekin tratoak noiz bukatuko -
diren zai.

Badago erratea ere Irundar/
eta Hondarribitarren arteko par--
tzuergo deitutako tratorik ez da
goela oraindik.

EZAUGARRIAK.-

Honelako uharkari "escolle--
ra" deitzen zaie. Harresiak, ha--
rriz eginda 300 metroko oinarria
du, zolaz; altueraz berriz, 57 -
metro. Urak 2,8 Hr. hartuko ditu,
baina gainera uharka zaitu eta -
garbia edukitzearren, bere ingu--
ruan lur gehiago behar du. Dene--
tara 11 Hr. izanen ziren uharka--
rentzat, hau da, Lesakak nituen/
lurretatik bortzetatik bat.

Lan honetan erratea bada e
re Aginako bidea uharkaren tra--
muan lekuz aldatuko dela.

Urte bat t'erdi edo 2 urte/
joanen dira lanak bukatu orduko.

OHAR GISARA.-

Lehen aipatutako babeserako
alderdiak beren baldintzak badi--
tuzte: uharkako uraren gehien ni
belatik hasita 500 metrotaraino,
inguruan diren lur guztietan zer
nahi lan egiteko "Ministerio de/
Obras Públicas"-en baimena behar
ko du. Alderdi hauetan ez daite--
ke baserririk egin; ostoen garbi
tasunengatik, koniferak bakarrik
landa daiteke; han barrena ibil--
tzeko ere baimena beharko da eta
gauza bera gertatuko da ongarrie
kin; kontutan eduki behar dugu -
ura edateko dela.

Uharkak inguruetako klima -
aldatuko du, urak, lainoa, heze--
tasuna eta euria eraginien ditue--

lako.

San Antongo ermita uraren - nibelatik 6 metrotara idorrean - geldituko da. Inguruetako base-
rriak, etxeko ur zikinentzat -- hobi aseptikoak egin edo erreka/
beheiti bota beharko dituzte.

Harriak, Idoizin baserria-- ren gainekaldean den harrobi batetik atera beharko dira. Honek -- erran nahi du zortzi hilabetez di namitak baserria astinduko dutela eta kontutan eduki behar da bertakoak baserriatik bizi direla.

"Ocisa"ko subastan lana hartu du eta barrenadore, txofer eta -- traktoristak kenduta, bertze lan gile guztiak Lesaka eta inguruta-koak izanen direla, dio enpresak.

- Uharka = Embalse.
- Garrantzitsu = Importante
- Sakondu = Profundizar
- Asmo = Pretensión
- Arazo = Problema
- Bidesari = Peaje
- Eskubide = Derecho
- Aukera = Opción
- Ikerlan = Estudio
- Erabaki = Decidir
- Aurka = En contra
- Orokor = General
- Udal = Corporación Municipal
- Hautatu = Elegir
- Jarrera = Postura
- Baldintza = Condición
- Hezetasun = Humedad
- Partzuer = Consorcio
- Ezaugarri = Característica
- Harresi = Muro
- Hobi Aseptiko = Fosa Aséptica.



"GU" TALDEAK.

TXOKO TXIKI

aurrera !!

ZER DA "TXOKO-TXIKI"?.- Lesakako O.H.O.ko haur euskaldunentzat toki bat da. Hau, moeta askotako aktibitate - egin dezakete: bideoa ikusi (euskaraz noski!), jostatu, irakurri, solastu, etab.

NONDIK ETA ZEIN ASMOREKIN SORTU/ZEN?.- Txoko-Txiki, Tantirumairu Ikastolaren asmoa izan -- zen. Honekin lortu nahi dugu: giro euskaldun batetan, haurrak -- egon daitezen leku bat. Beraz, -- Txoko-Txikiko hizkuntza euskara/ da.

EZ AL ZAIZU IRUDITZEN, ESAN DUZUNA DISKRIMINAZIO BAT DELA?.- Ez, ino laz ere. Zerbait diskriminatuta/ badago herri honetan euskara da. Zergatik? Ba, Ikastolako haurrek, bakarrik ikastolan eta -- etxean (eta ez denak) solas egingten dute euskaraz; komunikabidiak erdaraz, kaleko giroa gero/ eta erdaldunagoak, etab. Beraz, bakarrik nahi duguna zera da: -- "leku euskaldun bat, herri euskaldun batetan".

NOLA ERAMATEN DA?.- Egunero irakitzten da. -- Astebarruan 6-etatik 8-etara eta astebukaera eta jai egunetan -- 4-etatik 8-etara. Egun batzurretan bideoa izaten dute eta jo-koak, liburuak eta komikiak, papera, margoak, etab, han dituzte. Ardurapenerako komisio bat dago. Komisio horretan Ikastolako zenbait irakasle eta guraso sartuta/ dago eta 2. etapako zenbait haur.

ZER ERANTZUNA EMAN DU HERRIKO JEN-DEAK? ETA HAURREK?.- Orokorki hagitza ona -- izan da, nahiz eta bakarren bat -- aurkako posturan egon. Haurrena -- hagitza ona izan da. Haur aunitzetortzen dira eta ez bakarrik -- ikastolakoak. Azken finean haurrentzat alternatiba bat da. Toki/ bat ez bait dute lagunekin egoteko. Konturatzen gara alde horretatik motzak gelditzen garela eta -- horrelako leku bat beharrezkoa dela herri mailan gaztetxoentzat.


NONDIK DATOR LAGUNTZA?.- Lokala -- Herriko -- Etxeak utzi digu eta beste gastu guztiak Ikastolaren kontura joan/ dira (liburuak, gelaren prestaketa, telebista, etab.). Bideoa, Nafarroako Aurrezki Kutzak eman digu. Bideoko materialea Gipuzkoako



Ikastolen Elkartea, eta beste zen
bait erakunderen bidez lortzen du
gu. Badago denetarik; euskaldun-
tzeko erabiltzen diren pelikulak,
Euskal Telebistako materialea, --
etab'. Arlo honetan bai sumatzen --
dugula Euskal Telebistaren falta/
eta nolabait gustatuko litzaiguke
haren beharra sortzea'. Ikusita --
erakunde ofizialek ez dutela jar-
tzeko inongo intentziorik, ea no-
la lortzen dugun eskualde honetan
jartzea'.

PENTSATZEN DUZUE HEMENDIK AINTZI-
NERA, HAURREK BULTZATUKO DITUZTE-
LA BEREN AKTIBITATEAK?.-

Haurrak/
edozein/
aktibitate aurrera ateratzeko gai
dira. Gertatzen zaiguna orain de-
la ilabete bat ireki dugula Txoke
-Txiki eta antolaketa erdira dago
ela. Dena den, gure aldetik inongo
trabarik ez da izango haurrek be-
re lokalan beren aktibitateak --
aurrera atera ditzaten.



Gure euskal kulturaren, ber-
tze gauza aunitz bezala, bilduma
baten beharrean daude gure mendi
txokoetako izenak. Kezka bera su
matzen du TTipi TTaparen lagun-
tzaile on batek, baserritarra be-
ra. Kasetara hartuta baserrira --
ailetu gara eta balkoitik begira
solasaldi hau hartu dugu:

Lehenengo hola baitzen, jen-
dea mantso mantso ibiltzen zen -
ta. Orain du enteintzeko elkarre-
kin: edozeineri erran "baduk --
zuen ardi bat hila, ta nun? Elu-
txan", taka, taka Elutxara. Ber-
tzela "Labigan" erraiten badugu,
ez dugu esplikatzeko ahal. Binon/
hok, izen hok gurekin akautzen -
dire, gaurko bizia difentia bai-
ta.

G_ainko bizkarrak Monokarri,
honateko aldera Mono Gibela eta/
Mono Gibelko Erreka, bida guru-
tzeari Mono Gurutza. Pixko pixko
bat harat joan eta Argangata (ho-
ri bide exkinean). Eskuintara, -
hori da Larrakun. Gero han Trin-
txeta; goitigo Soroko Gaina. Ho-
ri ia Ardan Bideko bidia lotzen/
du hoiekin (Ardan Bidetik heldu/
den bidia). Idoia. Gero Premosko
Sorua eta Balkezeneko Borda, Pre-
mosko Borda (hoiek hala erraiten
dugu). Gero hori da, Oiaskanda,/
horraño puntta hori. Hor kuadro/
bat ageri da: Oiarzelaita. Horik
denak izanen ziren Ohian Exkanda
eta Ohian Zelaita, ez?. Gero ha-

**t
x
o
k
o**

**i
z
e
n
a
k**

rako han ikusten dituzu arbolak/
goiti hartan?, hura Mahastiko --
Borda da. Hunateko punta hori, -
hori da Portti. Zigardiko Borda/
eta Dornaku, alegia, gelditzen -
dire harateko aldera. Gero geldi-
tzen dire Zigardi Bereko Iraulko
Xokua eta. Horraño hori da Urka-
ko Harri, ta berriz hor arbol --
multso bat: hura Larrutxoko (hu-
ra Larre Xoko izanen da seguro).
Gero han harriak ageri direnak:/
Otsanda, Otsandazpia. Hortik bei-
la segitu ta arrautzen da pinadi
hartan harriko Lepo. Ia erreka:/
Kaal Bideko Erreka. Gero handi--
kan Manda Bidiak, hiru: Manda Bi-
dia, Bigarren Manda Bidia eta Hi-
rugarren Manda Bidia. Guk abitu/
dugun, erranen dut tradizioe gi-
sa, hori omen zen, (ta hor Infer-
nuko Atakatikan hor barnako mar-
txa) Castillako tiliak joaten --
omen ziren Baionara, hortikan --
Norteko Europara, puerto inpor--
tanteetikan omen zen hori, ta --
hortik ibiltzen omen ziren azemi-
leroak, beno mandazaiak, ta ho--
rregatik "Lasturrak" izanen zun/
"Lasterra" seguraski

- - - - -

Bainan hau ez da dena, ezta
puxka bat ere. Bilduma honen la-
na zabala da, lan polita denbora
berean. Borondate pixko bat aski
da, anima zaitetz!!

"GU" TALDEAK.

ON EGINAK ZER MEREZI DUEN

Harri handi baten azpian preso harturik, otso bat irten ezinik zegoen, laguntza eske.

Gizon bat pasa zen ondotik eta,

— atera nazazu hemendik adiskide, atera nazazu hemendik, erretgutzen zion gizonari.

— bai baina atera eta gero jan egingo nauzu.

— ez, ez zaitut jango, atera nazazu.

Azkenik, atera egin zuen harripetik. Otsoak esan zion:

— gose denak jan egin behar du, eta oraintxe bertan jango zaitut.

— ez al didazu ba esan ez nauzula jango?


— esan bai, baina gose denak jan egin behar du eta...

— hara, otsoko: bidean aurkitzen ditugun lehenengo hiruren kontseilua jarraituko dugu. On eginak gaizki merezi duela esaten badute, jan egingo nauzu.

Badoaz otsoa eta gizona eta bide bazterrean zakur bat aurkitzen dute. Gosez eta indarririk gabe ozta zebilen zutik gaixoa.

— kaxo, esan zion otsoak zakurrari: zure ustiez on eginak zer merezi du?

— on eginak? On eginak gaizki merezi du nere ustiez. Zenbat eta zenbat erbi harrapatu diodan nik ugazabari, eta zahartu naizenean bazterturik nauka gosez hiltzen.



Zakur gosetiaren kontseilua entzunik, aurrera egiten dute. Geroago behi zahar bat aurkitzen dute. Honek ere oso itxura tristea du.

— adiskide, galdegin zion otsoak behiari: zuretzat zer merezi du on eginak?

— neretzat on eginak gaizki merezi du. Hamaika esne zurrutada gozo eman dut nik, eta orain zer? Esne gutxi daukadalako, hemen naukate hezurretan, erdi hilik.

Orduan, otsoak gizonari:

— honez gero jan behar zaitut.

— ez, hirugarrenari ere bere erantzuna hartu gabe, ez, erantzun zion gizagaixoak.

Gizona larri eta otsoa pozik, bideari ekin zioten. Aurrerago azeri bat aurkitzen dute.

— azeriko, diotsa harro otsoak, on eginak zer merezi du?

— on eginak zer merezi duen? On hori zelakoa den, ikusi egin behar da lehenik.

Bai gizonak bai otsoak gertatuaren berri eman zioten azeriari. Azeriak erantzun zien:

— otsoko, lehen zela egon zaren ikusi behar dugu.

Hortarako, buelta egin eta otsoa harripean zegoen lekuraino bihurtu ziren.

— hauxe da harria, honetxexen azpian nengoen ni, esan zion otsoak azeriari.

Gizona eta azeriaren artean, lehen zegoen bezala jarri zuten otsoa harripean. Orduan azeriak esan zion:

— otsoko, hago hor, esker txarreko kirtin hori

Eta alde egin zuten biek.



Sinesgaitza

Bi hilabete igaro dira eta - oraindik ez nago zihur ametsa edo egia ote zen. Ez diot inori kontatu. Badakit edozeinek erotzen hasi naizela pentsatuko duela. Nik/ ere ez ditut gauzak argi; nolana- hi ezin dut nere barrenean gehia- go kontu, irakiten ari zait, ez - dut lasaitasunik, gauzez ezin dut/ lorik egin gertaera hura ametse-- tan agertzen zaidanean.

Horregatik gaur kontatu nahi dut gertatu zen bezala. Ez dut -- deus aldatu nahi, ez borobiltzeko eta ez ere gauza "ez normalak" -- kentzeko. Egin ondotik nere gorpu tza eta arimandako lasaitasuna es- pero dut, besterik ez.

"Nafarroa Oinez" Beran egin- dako igandea zen. Badakit Illekue- tan sartu nintzela, gibelko alde/ Yamoteneraino joan eta hango kua- dro eta irudi ikusketa ikusi nue- la. Jende tartean Kaxernara igan/ nintzen eta handik Garmendiko-bor- dara. Oraindik dena normala zen./ Sekulako jendetza zetorren malda/ gora. Ezin zen ostatura hurbildu. Bero egiten zuen.

Zenbait ezagunekin solasean/ egondu nintzen momentuko gauzetaz: denboraz, besta politaz, jende- - tzaz, euskararen bizitasunaz... - Erlojua begiratu eta ordu bat -- t'erdi zirela ikusi nuen.

"Abiatu behar dut -niretzat/ esan nuen- etxera g'legatu orduko bi t'erdia izanen ditut: Bazkal- tzeko tenorea".

Bidea hartu nuen. Badakit ne- re aintzinean jende mordoxka bat/ zijoala eta, ustez, atzetik ere - bai: ez nengoen bakarrik.

Esan bezala, Larentzen-borda- ko bidean sartu nintzen. Nere gau- zetaz pentsatzen ninjoan. Ibardin- go etxeak argi ikusten nituen ez- ker aldera eta, gainean, Zigorria- ga. Zenbaitetan Larungo harmasak/ ere bistan nituen.

Sekulakotan bide horretatik/ pasatu naiz etxetik Nabastrunera/ joaten nintzenean.

Hauxe izan zen -bidea ezagu- tzea- zerbait arraro pasatzen ze- la lehen inpresioa.

Zenbat denboraz joan liteke/

Garmendiko-bordatik Larentzen-bor-
dara? Bost minutuz?

Ni agitzez denbora gehiago -
pasatzen ari nintzen: hamar minu-
tu eta, behar bada, ordu laurden/
bat, eta baserria ez zen inon a--
gertzen! gelditu nintzen. Alde --
guztietara begiratu nuen. Ikusten
nuena ez zen ezaguna. Hura ez zen
bi etxe tarteko zokoa. Ez nuen -
Ibardina ikusten, ez eta ere Zigo-
rriaga edo Laruna: "Non nago? Zer
ergelkeria -pentsatu nuen- Suspe-
lako bidean".

Baina ez, ez zen egia: hura/
ez zen nik hartu nuen bidea. Be--
ran ez nengoen! Nere burua buelta-
ka hasi zitzaidan, erotzeko asmo--
tan.

"Baina, ni orain dela hama- -
bost minutu Garmendiko-bordatik --
atera naiz; hau ez da normala".

"Zaude trankil -neretzat nion-
zure ezinegonak behar ez diren gau-
zak erakusten dizkizu".

Begiak itsi nituen, agian de-
na bere bidera etorriko; baina al-
ferretan: bide hura ez zen nere bi-
dea, arbilak ez ziren nere arbolak,
bazterrak ez ziren nere bazterrak/
eta mendiak nere mendiak. Bakarrik
gelditu nintzen eta ez nere mun- -
duan; ez nuen laguntzarik, ez eza-
gunik: haur ttiki bat bezala nen--
goen, zer egin ez jakinez.

Daldarika hasi nintzen. Izer-

di hotz bat nere gorputza estali -
eta ezurretaraino sartu zen. Ikara
tu nintzen, egizki ikaratu. (Orduz
kerotik zenbait ile zuri agertu -
zaizkit).

Zihaldoka bidea jarraitu nuen,
ur xerrepa pasatu eta maldaxka bat
igaten hasi. Bidaxka estutzen zi--
joan, larra eta iratzeaz itsi arte.
Sasi mordoaren beste aldera pasa--
tzen saiatu nintzen. Beso, gorputz
eta ankak larrutu nituen.

"Abarkak ekarri banituke eta/
ez zapatila txar hauek. Nork pen--
tsa horrelakorik gerta litekela?"

Bide bat idekitzen jokatu nin-
tzen. Izerdi hotza ez zitzaidan -
joaten, ez eta ere berotasuna ne-
re gorputzean sartzen. Bi orduz -
lan horretan saiatu nintzen, ni -
pasatu bezain laister, sasia is--
ten zen: ez zegoen atzera itzul--
tzeko manerarik.

Ondarreko xara hura bakan- -
tzen hasi zen eta bidaxka moduko/
zerbait agertzen. Nere bihotza --
saltoka bere tokitik ateratzeko -
moduan neukan. Aintzinerara segituz
bide batetara atera nintzen. Zer-
bait goxok barrena ukitu zidan: -
bide hura ezagutzen nuen! hura --
zen Lorentzenbordakoa!

Geroxeago baserri gaineko al-
dean nengoen. Eseri eta jendea no-
la pasatzen zen ikusten egon nin-
tzen. Ez nintzen inor ezagutzeko/
gauza. Ingurua lehen bezala bal--

din bazen, nere barrenean korapi-
latzen ziren ideiak, inpresioak,/
ezinegonak, pertsona diferente --
bat egin arte. Erlojua begiratu -
nuen: biak hogeit gutxi ziren. Ha-
rrituta gelditu nintzen: hamar mi
nutu besterik ez zen pasatu Gar--
mendiko-bordatik atera ondotik! -

Eta neretzat, ia ia bi ordu!

Handik aintzinerara ez nuen --
deus ikusi, deusi kasorik egin. -
Besta neretzat bukatu zen. Orain/
arte ez dut bururik altxatu. Eta/
ez dakit noiz arte.

LANDAXOKO.

KOXKONTA IRRATIA

Ezin ukatu batzutan Lesakako
berriak ere interesatzen zaizk gu
la Beran; beratar eta lesakarren/
arteko istilu eta iskanbila histo-
rikoak gaur egun arlo auniztan --
ahantziak gelditzen bait dira. Gu
re biziera modernu honek mugak zi
pi-zapa hausten ditu, bere intere-
sak muga horien gaintik baldin --
badaude. Ia ez dago herrien arte-
ko errietak (erristak) egiteko as
tirik ere. Ai, hau garai petrala!

Hortaz ba, erraten genizuen/
bezala, ezin uka Lesakako albiste
franko Beran ere interesgarriak -
izaten direla. Eta hona hemen --
bat, oso polita: Lesakanirradi --
txiki bat dabil, bertan egina eta
bertakoentzat, "Koskonta" du ize-
na (baserriko auzo bat eta karri-
ka lotzen dituen bide baten izena
hartu du), eta noizean behin bede-
ren Lesakako sukalde zoko guztira
sartzeko meritoak irabazi ditu.

Irrati bat herri batean... -
ez egun oro honelakorik gertatzen.
Eta hortan ari direnengana jo du/
"TTIPI-TTAPAK". Gazte taldetxo --
bat... "pobreak poltsaz, baina --
aberatsak buruz, irudimen edo ima-
jinazioz"...

TTIPI-TTAPAK.-Irrati hau nola eta
noiz sortu zen?.

KOSKONTAK.-Ba urte pare bat bai -
hasiak garela. Hain xu
xen orain dela bi urte
ko Sanestebetan hasi -

ginen, sinistu nahi baduzu. Ez
da Berako besta haietan, moz--
kor aldi batean aterako ideia.
Ia ordukoz bagenbiltzen harat/
eta honat. Bainan, bai: Berako
besta igandean hasi ginen, due-
la bi urte eta gehiago ia.

TT.TT.-Eta bi urtez isuldu gabe?

K.-Ez, ez. Pertsonak bezala ide--

iak eta proiektuak beren krisi aldiak izaten dituzte. Urte -- bat t'erdiz aritu ginen astean lau ilunabarrez, bainan lurra/jota gelditu ginen!. Herri ba--tean, herrixka batean, asteoro lau ilunabar betetzea gauza in--teresgarriekin ezin da. Erre -- egin ginen, hilabete batzutako atsedenaldea hartu, eta herriz ere hasi, orain igande goize--tan bakarrik.

TT.TT.-Zer behar da irrati bat -- martxan paratzeko?

K.-Nahi duzu jakin zer? Gogoa eta imajinazio pila bat. Teknikoki ez da batere zaila. Hasieran -- diru pixko bat ezarri beharko/duzu zure poltsatik, toki hat/eta tira... Diskak eta kasse--tat edozein etxetan badaude er--di zokoratuak. Bæ, taldetxo -- bat egin, elkar antolatu edo -- organizatu, eta aintzinerara joa--teko, saiotik saiora gauzak ho--beki egiteko gogoa, gogoa eta/gogoa...

TT.TT.-Ofiziziala edo...

K.-Bai, bai... Tgande goizero ga--biltza atez ate, sukaladez su--kalde, eta lesakar guztiak -- onartzen gaituzte. Onartu eta/txalotzen gaituzte. Zer nahi -- duzu hori baino ofizialtasuna/haundiagorik?

TT.TT.-Bertze irrati-tako jende--



rekin harremanik ba al du--zue?. Eta nolakoak...

K.-Estaduan irrati askatu edo -- irrati libre pila bat dago. -- "Koskonta"--ren ama zena "Lizarr--arra irratia", Lizarra-Estella--koa itxi zuten. Iruñean ere -- beste bat isilarazi zuten. Bai--nan Katalunyan batez ere irra--ti askatu pila bat dago. Bera--iekin gaude harremanetan: tar--teka guztien arteko batzarrak eginez, aldizkaritxo bat ere -- badabil. Gutxi da "Koskontak"/haieri eskeini diezaiokena, ho--riek egun osoz ari diren irra--tiak bait dituzue. Bainan ha--iengandik aunitz ikasten da.

TT.TT.-Zenbat lagun zarete lanean ari zaretenak?. Kolabora--tzailerik?

K.-Zenbat lagun?. Gauzak ongi doa--nean, denok lagun... Bueno,/seriotan: dozena erdi bat -- gazte baino gehixeago hortan konprometiturik. Laguntzaile edo kolaboratzaileak, ofi--zialki inor, bainan prakti--kan herri osoa laguntzeko --

prest. Erran dugu lehen herriaren oniritzi eta ofizialtasuna daukagula. Batzuk diskakuzten dizkigute, bertzeak halako edo horrelako berriak eman bertzeak diru laguntza!... eta denak animoak pilaka, ez dela laguntza txarra animoak emate ere, e?

TT.TT.-Ze asmo izan dituzue irratia martxan paratzeko orduan?

K.-Bi hitzez errango: herrian bertako albiste, notizi eta tartailkeria batzuk zabaldu, eta musika arin arin bat, bizia -- pixko bat goxatzeko. Gure artean, gure gauzetaz!... Horixe, bakarrik eta hori dena!

TT.TT.-Zerk eman dizue orain artean lan haundiena?

K.-Konpromisoa hartu araztea jendeari. Hau Lesakan behintzat ez da batere erraxa izaten. Ugitekabeen pasatzen da astea, -- eta irрати saioa prestatu gaubea, eta horri eskeini behar -- larunbata. Eta igandean ere nahiko goiz jeiki behar, eta han urduri, mikrofonoa baten aintzinean!... Burua oso erne eta/lasai eduki behar da mikrofono baten aintzinean bizpahiru ordu egoteko. Horixe da zailena: jendeak konpromisoa hartzea, -- eta erantzutea.

TT.TT.-Zer eta nola programazioak?

K.-Bakoitzak ahal duena egiten du. Normalki, herriko notizi eta --

tartailkeria batzuk, elkarrizketa baten bat, eta musika pila bat. Ez gara Jose María Gartzia bezain abilak, baina Luis del Olmoren programei ez diegu enbidiarik (ala!)!

TT.TT.-Euskaraz?. Zer leku du euskarak?

K.-Irrati saio osoak euskara huttsez izaten dira. Faltaria -- plus!. Erdaraz ari diren irratiti pila baf badaude hortik. Pena bat da, erdaldun jendea ere badagoelako herrian, baina, -- zer?: gu bietara, eta bertzeak erdara hutsean? Guk, euskaraz/ eta kitto.

TT.TT.-Zer eskatuko zenio teke -- zuen entzuleei?

K.-Beratar entzuleei, eskatu diezaiotela Diputazioari antena haundi bat Otxangon, Lesakako/ "Koskonta" irratia Beran ere -- hartzeko (broma zen). Gure entzuleei lehenbizi hauxe eskatzen diegu: Barkatzeko gure hutsuneak, ez bait gara profesionalak. Bainan badakigu hasi -- aintzindik barkatuta gaudela./ Igande goizetan sukalde eta -- etxe zokoan egin behar dutenei (etxe koandreei, heri zaudetenei, kolean goxotasunik harra -- patzen edo aurkitzen ez duzenei!...) hauxe dizuegu eskatzen eta eskeintzen: lagun, hator -- gurekin, denok elkarrekin, badugu zer egin! Koskonta, 101 -- Mz-tan, kuttun kuttun, zuekin.



bertsolaritza

PAULO YANZI

Orain dela hiruzpalau urte aditu nuen lehenbiziko aldiz gure gaurko bertsolariaren izena. Hain xuxen ere Lesakan, San Fermiñetako bertso saioa bere izenaz bataiatu zutenean. Zenbait urtez ospatu da, batzutan bertan Nafarroako Txapelketa sartuz, "Paulo Yanzi"/bertso jaialdia.

Baina, egia erran, ordukotz/nahiko gizon ezaguna zen bertsozaleen artean, "Bertso Zaharrak" izeneko diskan Lete-Lekuona-Valverde hirukoteak bere "Afrikako gerrarenak" bertso saila kantatu/

zutenetik eta, gehienbat, Auspoa argitaletxeak Aita Zavalaren eskutik/"Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak" liburuia argitara eman zuenetik.

Urrutirago joan gabe, nerone ere liburu horretaz baliatu naiz artikuluxka hau egiteko, bidasotarrek geure bertsolariak ezagut ditzagun. Aintzineko numeroan saiatu nintzen Inazio Larramendi bertsolariarengana hurbiltzen, eta hementxe dugu haren garaiko bertzea. Ezagutuko zuten elkar, dudarik ez da, ez dakit ordea nolako hartu-emanetara ailegatu ote ziren elkarren artean.

Larramendiren gisara Paulo Yanzi ere ez zen destakatu jende aintzinean bertsoak inprobisatu eta kantatzeagatik, ez, fama eman diotenak bertso jarriak izan dira, berak eskribitu zituen bertsoak alegia./Eta horiekin, erran bezala, liburu bat osatu zuen Aita Zavalak, bertan bertso aunitz bilduz. Fazeta honetan oparoagoa izan zen Yanzi Larramendi baino.

Liburuaren hasieran Pauloren seme den Pepitok kontatzen du bere aita zenaren bizitza eta, geroztik, (nor semea baino egokiago aitaren/

gorabeherak kontatzeko!) berari utzi diogu hitza, berak eskribitu zuen ortografiaz ta guzi, Paulo Yanzi nor izan zen jakin dezagun:

"Gure aita jaio zen Igantzi'ko errian, 1882 urteko Otsaillaren la-bian. Bigarren deitura, Petrikorena zun.

Amaka urterekin asi zan lanean, bere aitarekin, Ponpollegi'ko mine-tan. Mina ok dira Eskolmendi deitzen zaion Lesaka'ko terrenuan, Irun'/go mugan. Igantzi'tik lana egin bear zuten tokira, bazen lau orduko bi-dea. Ta egunero yoan da etorri egiten zuten".

"Bein batian, Ponpollegi'n lanian ari zela, nere aitak zun palan-ka, ta bertze lagun bat ari zen malluakin arrian zulo egiten, dinamita/jartzeko. Alako batian ateri zen arri-kozkor bat, eta yo zun belaunian nere aita. Asi zen belaunari elduta ai, ai, ai egiaz miña artu zula--koz, eta bere lagunak, ikusi zunian nere aita orrela, bera pixka bat -konten utzitziatatik, erran zion:

-Paulo, labekatua!

Labekatua zen berendua erraten duguna. Ordun nere aitak, bere min-guziarekin aditu zunian labekatua, erran zion lagunari:

-Labekatua? Oñazia bai bolara batekua!

Ori zen nere aitaren umoria. Naiz bera oñazez egon, beti prest -bertsua botatzeko". Paulori bere aitarengandik heldu omen zitzaion ber-tsozaletasuna. Harek kutsatua izanen zuen barreneko zera hori. Honela/aipatzen digu Pepitok bere atautxi zena:

"Gizon famatua zen; yotzen zun txistua eta larunbatetan, lagunen -artian, kantatzen zitun bertsuak".

Behin hasi omen ziren, lehenbiziko aldiz, aita-~~semeak~~ (Paulo ta -bere aita, alegia) ostatuan bertso kantari.

"Orduzkerotik, aunitz aldiz, aita-~~semeak~~ etortzen ziren etxera, -bidian alkarri puntu paratuz bertsutan".

"Ordun bizi ziren Lasati'ko errekan, Aiezteneko-borda'n. Gero bi-zitu ziren Igantzi'ko errian, orain Tabernia izena dun etxe batian. Nik an ezagutu nun nere aitaren famile guzia".

Igantzi'tik Ameriketara salto egin zuen horietakoa dugu Paulo:

"Denbora etan etzen lan aunitzik errietan, eta pobre bizi ziren -yendiak. Denbora etako lana izaten zen batzuek landatan, bertziak egur-garraio, eta aunitz ere bai kontrabanduan.

Nere aitari sartu zaion buruan Ameriketara yoan biar zula lanera!./
Bañan arat yoateko biar zen dirua, eta nere aitak etzun. Ordun bere la-
gun batek eman zion biajia pagatzeko".

'Estancia' erraten zioten arrantxu batean egon omen zen zaldiak he-
zitzen, eta boxeoan ere ikasi omen zuen. Lagilea hagitz, indar haundi--
koa, gisa guzietara destakatzen zuena, "Ta oso mutil ederra zelakoz, an-
go yendiak erraten zion 'el vasquito lindo'".

"Argentina'n egondu zan denbora batzuk, eta etorri zen berriz Igan-
tzi'ra. Egondu zen emen denbora batzuk, eta berriz yoan zen Ameriketara,
bañan oraingo aldian Californi'ra eta Nevada'ra.

Emen egondu zan beti ardi zai mendian,...

Ta an zagolik, izandu zitun estomako-miñak. Etorri zen berriz Igan-
tzi'ra, ta or ibilli zen medikuakin batera ta bertzera, bañan etzuten -
ongi utzi".

Estomako minak eta herri minak ere seguraski ekarri izanen zuten /
Paulo bere jaioterrira. Hemengo andre baserritar batek sendatu omen --
zion estomakoa. Eta bihotzekoa bertze amakumezko batek, Esperantza Alva-
rez Sein lesakarrak. Honatx lehenbiziko aldiz ikusi zuelarik zer erran/
zion Paulok begietatik muinetaraino sartu zitzaion neskatxaren amari:

- "Nik neska au nai nuke nere andretako!

Ta andre arek kontesta:

- Etorri nai duzunian ta solas egiñen dugu".

Joan omen zen, konpondu omen, esposatu ta bere andreak ta amagia--
rrebak zuten dendan jarri omen zen bera ere.

"Idea berriakin tienda obetuz; eta gañera, terrenu batzuk ere ero-
si zitun.

Ikasi zun kordiona yotzen, agitz ongi gañera, eta yotzen zun egune-
ro yendia ekartzea gatik, eta bertsuak ere kantatzen zitun.

Ezkontza omen frutuak izandu gera, lendabiziko, mutilla, ni, ta ge-
ro neska, nere arreba Martina".

Urteak pasatu ziren, Paulo zahartu, Pepito semea kordeolari famoso-
a Ameriketako itzulia eginik Donostian instalaturik, eta behin Lesakara
aitari bisita egitera joan zenean honela erran omen zion aitak:

- "Tiendan traspasu egin diot nere illobari ta emendik antziñera --

joan biar dut bizitzera zurekin Donosti'ra. Azkeneko egunak elkarrekin bizi biar tugu, ta konponduko gera!".

Hala joan omen zen Paulo Donostiara bere azken egunak pasatzera.

"Donosti'ko Bar Bartolo'n yartzen zuten astero pizarra aundi bati an bertso bat euskeraz, ta yende guzia egoten zen bertsuari begira. -- Egun batian etorri zen gizon bat galdetzera biar zutela nere aitaren bertso bat, eta eurek erran zidaten zein". Honako hauxe:

"Euskalerrriyan jaio,
baita bertan azi,
askok erriko izkuntza
ez dute ikasi;
txikitikan naiago
erdarakin nasi,
gazte askokin ori
geinetan ikusi;
txikitikan asi
euskeran igesi,
erderakiñ duazi,
bañan emen bizi...
euskeldun izenik ez
dute merezi!"

ANTONIO ZAVALA. S. I.

PAULO YANZI

TA BERE LAGUNEN BERTSOAK



AURPOA LEBURUTIA

"Bertsua paratu zuten an, pizarran, ta an egondu zen aunitz denboraz. Yoan biarrak giñan aita eta ni ikustera, bañan egun etan il zen bera".

"1962'ko Azaroaren 30'an, goizeko amaiketari il zen, ta eraman gendun Lesaka'ko kanposantura".

.....

Honaino Pauloren bizitza bere seme Pepitoren ahotik. Nik nere aldetik motz-motz erran nahi nuke Paulo Yanziren lanak argi erakusten -- duela ofizioa ongi ezagutzen zuela. Neurri ta doinu desberdinak ezagutzen zuten eta bazekien hetaz trebeki baliatzen. Eta horretaz gainera/neretzat hagitz inportantea den bertze datu bat: Paulo bertso-jartzaille herritarra izan zen. Hau da, bere herriko eta inguruetako gorabeherak bertsoak eskribierazten zitioten. Hetaz aritzen zen bere iritzia -- garbi agertuz, konflikto ta ezбайдara ailegatuz aunitzetan, eta bere -- publikoa zuen, bere bertsoen esperoan, egarriak, egoten zena. Horrela,

dударик ez, Aita Zavalak ongi ikusten duen bezala, "bertsolari-mordox ka polita sortu-azi zuan bere inguruko gazteetan: bere seme Pepito, - bere illoba Josetxo, bere illoba txiki Salvador Etxarte, ta bere erri tar Dauid Aranburu ta Leon Bereau".

KAPI.

BERTSO AK

(1922)

INAUTERIYETAKO DEIA
EUSKALERRIYARI

E-mē-tzi eun ur-te pa-si-a, o-rai dua o-
gei ta bi-ya, i-lla ta be-re te-no-ri-a, O-tsu-
-llan er-di-ya; al-de-tu da l-ñau-te-ri-ya,
gu-a-zen zar-ta gaz-te-ri-ya aur-ten on-ra-de-
-za-gun Le-sa-ka-ko e-ri-ya.

- 1/ Emetzi eun urte pasia,
orai dua ogei ta biya,
illa ta beren tenoria
Otsaillan erdiya;
aldetu da inauteriya,
guazen, zar eta gazteriya
aurten onra dezagun
Lesaka'ko erriya!
- 2/ Badator inaute-eguna,
bada itz aue zeñek entzuna,
euskaldun guziyon artian
bada alaitasuna;
betor plaz'aldera txuntxuna,
zeñ den gure soñu kutuna,
euskaldunen artian
maitatzen deguna.
- 3/ Oñ mugitzen ditu aurrak,
bai eta animatu zarrak,
arindutzen ditu eriyak,
baita're elbarrak;
txuntxunaren soñu ederrak
jartzen ditu denak azkarrak,
guazen plazara, guazen,
euskalerritarrak.
- 4/ Oñ dirade egun pozgarriyak,
alai dirade gazteriyak,
aldetuak diradelakoz
trapu zar periyak; (2)
egun oietako komeriyak,
estalirikan arpegiyak,
jostaketa onak dauzka
aurten gure erriyak.
- 5/ Bertan dauzkagu musikuak,
bai eta gure errikuak,
dantz-aire ariñak jotzeko
gogo aundikuak;
guazen, neska ta mutikuak,
kale eta baserrikuak,
dantzatzer a fandango
eta zortzikuak.
- 6/ Badauzka Lesaka'ko erriyak
aurten jostaketa aundiyak,
alaitasunakiñ guazen
euskaldun guziyak;
etorri, makill-dantzariak,
dama gazte pare-gabiak,
guazen, dantza detzagun
euskaldun airiak.
- 7/ Guazen, guazen, zar eta gaztiak,
guazen plaz'aldera guztiak,
antxe ikusiko ditugu
gauza txokantiak;
guazen, neskatx elegantiak,
bai eta zuen amantiak,
alai pasa detzagun
aurten inautiak.
- 8/ Etorri aurten Lesaka'ra,
guziyondako toki bada,
inauteriyetako bestak
alai pasatzera;
emengo mairu ta maskara,
jostaketa ona nola ez para?
biba alaitasuna
ta gora euskara!

(12 BERTSO DIRE DENETARA.)

(1922)

BERTSO BERRIYAK
(AFRIKA'KO GERRARENAK)

Ber-tsu-ak jar-tzen naiz a-si ko-pi-a-
-tu-az ta gu-zi, nai di-tu-a-naki-ka-si; A-
fri-kaal- de-ra o-rain-go a-di-yangaz-te-ri
aun-di-yak dua-zi; di-o-te a-di-e-ra-zi ez-de-la
juan biar-i-ge-si; a-nak na-gar-rez dau-de-zi.

- 1/ Bertsuak jartzen naiz asi
kopiatuaz ta guzi,
nai ditubenak ikasi;
Afrika aldera oraingo aldiyan
gazteri aundiyak duazi;
diote adiderazi,
ez dela juan biar igesi;
amak negarrez daudezi.
- 3/ Artu manta ta motxilla,
juana bada asko milla
moru artera Melilla;
eben buruan defenditzeko
matxetia ta fusilla;
ogei urtetan mutilla,
obediente ta umilla,
bizi jokatzen dabilla.
- 4/ Asiya naiz adbertitzen
gaxuak nola dabiltzen
atakian elkar iltzen;
soldado oien ama tristiak,
egon zaitezte aditzen:
gaba eta egun sufritzen,
nola zeraten aritzen
gerrako seme azitzen?
- 8/ Bete besuak galoiez,
zillar ta urre-kolorez,
agindu modu gogorrez;
artu ta eramen gure semiak
azitakuak dolorez;
ez dute eskatzen faborez,
batek nai badu eta ez,
lur bustitzera odolez.
- 9/ Eman arma ta trajia,
Afrika'ra barajia,
mutikuak korajia;
kristandadian izenarekin
gizon iltzera biajia;
moro edo salbajia,
ura da aien parajia,
Jaun Zerukuak lajia.
- 23/ Orra gerran ondoria:
gure gazteri floria
desastre ortan eroria;
triste oientzat eskatzen dizut,
zeru ta lurran Jabia,
beste munduan gloria,
zorion pare gabia,
Afrika'n baño obia.

(25 BERTSO DIRA DENETARA)



Gaua leihotik sartzen zitzaidan.

gauari, inork ez zion erran sartzekorik
eta
sartu egim zen.

gauaz, inork ez zion leihorik zabaldu,
eta
sartu egim zen,
barruan zegoen eta.

gau isila, denbora eta lekurik gabeko gaua.

Eta, bart: gauarekin
gauean
gauaz, galdu egim mintzen.
mom mago?

Txit! ez zaitetz izan nire ispilu,
ez ditut ikusi nahi zuregan
nire hutsume berberak.

Txit! ez dizut hori eskatzen,
eta
ez dizut sartzen utzi nahi.

Txit! izan zaitetz zu,
ni izan nadin
edo alderantziz.

Txit! Sobera hurbil zaude,
sobera hurbiltzen matzaizu,
hurbilhurbilhurbil...

mom zaude mi?
nor maiz zu?
moraino zera mi?
mola maiz zu?

Hain erreza,

hain zaila da muga hori bereiztea!!!

Eta,

hain zaila,

hain erreza gau izatea!



"THE ROAD" Egilea: ZIGURDS BILZONIS (URSS)

Erreka zokoak ilun eta itzalaz dauden. Neguko egun tristeak lohalia ematen dute. Urrutiko mendiak lainez zaindoak dauden more edo plomo kolore batez harturik.

Zerua garbi dago tarteka iluntasun batzuek, oraindik argi pixka bat badabil zeruan. Basarriak beltz eta ikez inguratuak ikusten dira, ia ikeak gordetzen ditu. Ixiltasun oso batek menperatuta dauka herria, elurraren soinua bakarrik entzuten da.

Zuhaitzak soil daudezi, eta haizeak dardaitzen ditu, zainetik atera naizik. Pinuak arrez beterik daudezi, eta ostoak beti begira dauzkate.

Iluntzen ari du, kolore ilun eta gorriak ikusten ditut, eta hotza sartzan zait hezurretaraino.

Orain laino zepa batek hartu du dena ez da ezer ikusten. Errekak ebaki bat ematen du, lurrari ebaki bat egin bagenion bezala. Lainoak, gasazko benda bat iduri dute zuri, zuriak.

Malkorra aldetik odei beltzaran itsusi batzuek agertu dira, elkargai neka eldu dira, zaldizkoak bezala, eta.... euria gogoz hasi du.

Burdin soinu idor bat entzuten da harrietan, belarrian txistu bat entzuten dut, haizea indartzen ari da.

Trumoi bat entzuten da, soinu itsusia, burdinazko bidoi bat jotzen denian bezalakoa, euria eta haizea ia zeharka erortzen, dira, etxe paretak bustiz.

Bideetan ikusten ditut tarteka putzuak eta hauek urrutitik begiratu ta zilar kolorezkoak dira.

Herria bildu, bildu egin da dago, hotzez eta bustiak ikaratuta.

Noizpeinka tximistak zeru beltz hori argitzen du, baina gero berriz bere iluntasun basati ortara itluntzen da.


Ekaitzak beren ahotsa adierazten digute.

Haizea leihoek jotzen ditu, zaldien galopadaren soinua arrunt, eta tarteka trumoiak, kanoi tiru bat bezalaxe.

Hauek gudako frentian itxura ematen diote gauari.

Bildurra sartzen zait, ikusten ditut basajaunak eta animak, eta Kampo Santuko, ezkila entzuten dut.

Bainan ez, nere imajinazioa zen. Ez da ezer holakorik gertatzen.



ABENDUKO ILUNABARRA

Jesús Guzmán

PICASSO BATEN AURREAN ORDUAK EGON
DAITEKEEN HOIETARIKO BAT NAIZ, KUADROA
GUSTATZEN ZAIDAN ALA EZ ERABAKI EZINIK,
NOSKI.



KOMIKIAK, "HOLA" ETA "LECTURAS"
BEZALAKO ALDIZKARIAK, ALFREDO LONDAN
FILMEAK ETA ABAR... EZ ZAIZKIT ASKO
GUSTATZEN BAINA, ONAK OMEN DIRA
IRRI EGITEKO EZTA?....



HIT-PARADE-KO ABESTIAK EZ DIRA BETI NIRE
GUSTOKOAK, BAINA GUSTO TXARRA DUDALAKO
IZANEN DA.



POLITIKAN, BERRIZ, JENDE GUZTIAK
DUELA ARRAZOIA IRUDITZEN ZAIT, BAI
KOMUNISTAK IZATEAN, BAI KAPITALISTAK
KAPITALISMOA DEFENDITZEAN.



MIRETSI EGITEN DIET BATZUEI, DUDATU
GABE DAKITELAKO, ZEIN DEN ONA, EDERRA
EDO ZUZENA. NI ORDEA, BETI HARRITURIK
GERATZEN NAIZ, ZER ERRAN JAKIN
GABE.



GAUZA BAKAR BAT DAUKAT ARGI :
LOREAK ETA TXORIAK MAITE
DITUDALA BAINA HAUEK,
AGERTZEN DEN EDOZEIN ERGELAREN
ESKUETAN DAUDE....ZORITXARREZ....





Juan Llanusa
1953

Juan Llanusa